


INDUSTRIA INGENIARITZAKO UNIBERTSITATE MASTERRA

MASTER AMAIERAKOLANA

Hiru zutabeko transformadore baten modelizazio xehatua saiakuntza esperimentalen bidez



Ikaslea: Garcia Romera, Unai

Zuzendaria: Planas Fullaondo, Estefanía

Ikasturtea: 2023-2024

Data: Bilbon, 2024ko Ekainaren 6an

Laburpen hirueleduna

Izenburua: Hiru zutabeko transformadore baten modelizazio xehatua saiakuntza esperimentalen bidez

Laburpena: Master Amaierako Lan (MAL) honek hiru zutabeko transformadore baten modelizazio xehatua garatzen du saiakuntza esperimentalen bidez. Helburua plataforma esperimental bateko transformadore baten eredu digitala sortzea eta ezaugarritzea da. Proiektuan ereduaren garapena, saiakuntzetan oinarritutako emaitzen azterketa eta balidazioa barneratzen dira. Lan honek, transformadorearen portaera ulertzea eta banaketa-sareetan aplikazio berriak garatzea bilatzen du.

Gako-hitzak: Potentzia-transformadorea, inpedantzia homopolarra, saiakuntzak, simulazioa.

Título: Modelización detallada de un transformador de tres columnas mediante ensayos experimentales

Resumen: Este Trabajo de Fin de Máster desarrolla una modelización detallada de un transformador de tres columnas a través de pruebas experimentales. El objetivo es crear y caracterizar un modelo digital de un transformador en una plataforma experimental. El proyecto incluye el desarrollo, análisis de los resultados basados en ensayos y validación del modelo. Este trabajo busca comprender el comportamiento del transformador y desarrollar nuevas aplicaciones en redes de distribución.

Palabras clave: Transformador de potencia, inpedancia homopolar, ensayos, simulación.

Title: Detailed modeling of a three-column transformer through experimental tests

Abstract: This Master's Final Project develops a detailed model of a three-column transformer through experimental testing. The goal is to create and characterize a digital model of a transformer on an experimental platform. The project includes the development, analysis of the model's results based on tests and validation. This work aims to understand transformer performance and develop new applications in distribution grids.

Key words: Power transformer, zero sequence impedance, tests, simulation.

Aurkibidea

Lapurpen hirueleduna	I
Akronimoen zerrenda	VI
Notazioa	VII
Taulen zerrenda	X
Irudien zerrenda	XI
Grafikoen zerrenda	XIII
1 Memoria	1
1.1 Sarrera	1
1.2 Testuingurua	2
1.2.1 Global Smart Grids Innovation Hub	2
1.2.2 APERT	3
1.2.3 Flexible Power Link	3
1.2.4 Plataforma esperimentalak	5
1.2.5 Funtzionamendua akats egoeran	6
1.3 Helburuak eta irismena	7
1.3.1 Helburuak	7
1.3.2 Garapen Jasangarriko Helburuak	8
1.3.3 Irismena	9
1.4 Proiektuaren onurak	10
1.4.1 Onura teknikoak	10
1.4.2 Onura sozialak	10
1.4.3 Onura ekonomikoak	11
1.5 Artearen egoera	12
1.5.1 Transformadorea	12
1.5.2 Harmonikoen eragina	13

1.5.3	Tentsio desoreken eragina	14
1.5.4	Nukleo-egiturak	16
1.5.5	Konexio mota	20
2	Metodologia	22
2.1	Aukeren analisia	22
2.1.1	Transformadorea	22
2.1.2	Simulazio-programak	23
2.1.3	Transformadorea ezaugarritzeko metodoa	25
2.2	Proposatutako irtenbidearen aukeraketa	27
2.2.1	Transformadorearen eredu elektrikoa	27
2.2.2	Induktantzia ez-linealak modelizatzeko azpisistema	35
2.2.3	Transformadorea parametrizatzeko saiakuntzak: Oinarri teorikoak	36
2.2.4	Transformadorea parametrizatzeko saiakuntzak: Hardwarea	46
2.2.5	Transformadorea parametrizatzeko saiakuntzak: Emitza esperimentalak	48
2.2.6	Transformadorearen ereduaren balidazioa	60
2.3	Planifikazioa	69
2.4	Gantt-en diagrama	72
3	Alderdi ekonomikoak	73
3.1	Barne orduak	73
3.2	Amortizazioak	74
3.3	Gastuak	75
3.4	Kostu totala	75
4	Ondorioak	76
4.1	Etorkizuneko lan-ildoak	77
	Bibliografia	78
	I. Eranskina	81
	II. Eranskina	92

III. Eranskina

94

Akronimoen zerrenda

AC Korrante Alterno.

Aenor Asociación Española de Certificación y Normalización.

APERT Applied Electronics Research Team.

ATP Alternative Transients Program.

DC Korrante Zuzen.

EMTP Electromagnetic Transients Program.

FPL Flexible Power Link.

GJH Garapen Jasagarriko Helburuak.

GSGIH Global Smart Grid Innovation Hub.

GST Grounded Specimen Test.

GSTg Grounded Specimen Test with guard.

IEEE Institute of Electrical and Electronics Engineers.

MAL Master Amaierako Lan.

UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea.

UST Ungrounded Specimen Test.

Notazioa

- \mathcal{F}_{prim_A} A faseko harilkatu primarioaren indar magnetoeragilea.
- \mathcal{F}_{prim_B} B faseko harilkatu primarioaren indar magnetoeragilea.
- \mathcal{F}_{prim_C} C faseko harilkatu primarioaren indar magnetoeragilea.
- \mathcal{F}_{sek_A} A faseko harilkatu sekundarioaren indar magnetoeragilea.
- \mathcal{F}_{sek_B} B faseko harilkatu sekundarioaren indar magnetoeragilea.
- \mathcal{F}_{sek_C} C faseko harilkatu sekundarioaren indar magnetoeragilea.
- μ Iragazkortasun magnetikoa.
- ϕ_0 Fluxu magnetiko homopolarra.
- ϕ_1 Zutabe eta barneko harilkatuen arteko fluxu magnetikoa.
- ϕ_{ihes} Barne eta kanpoko harilkatuen arteko fluxu magnetikoa.
- ϕ_y Uztarri bakoitza zeharkatzen duen fluxu magnetikoa.
- ϕ_z Zutabe bakoitza zeharkatzen duen fluxu magnetikoa.
- \mathfrak{R}_0 Fluxu homopolar magnetikoaren erreluktantzia.
- \mathfrak{R}_1 Zutabe eta barneko harilkatuen arteko fluxu magnetikoaren erreluktantzia.
- \mathfrak{R}_{ihes} Ihes-fluxu magnetikoaren erreluktantzia.
- \mathfrak{R}_y Harilkaturik gabeko nukleo zati horizontaleko (uztarriko) erreluktantzia.
- \mathfrak{R}_z Zutabe bakoitzeko erreluktantzia.
- B Eremu magnetikoa.
- e Indar elektroeragilea.
- I Korrontea.

- i Karga indizea.
- L Luzera.
- L_0 Induktantzia homopolarra.
- L_{1A} A faseko zutabe eta barneko harilkatuen arteko induktantzia.
- L_{1B} B faseko zutabe eta barneko harilkatuen arteko induktantzia.
- L_{1C} C faseko zutabe eta barneko harilkatuen arteko induktantzia.
- L_{ihesA} A faseko barne eta kanpoko harilkatuen arteko induktantzia.
- L_{ihesB} B faseko barne eta kanpoko harilkatuen arteko induktantzia.
- L_{ihesC} C faseko barne eta kanpoko harilkatuen arteko induktantzia.
- L_m Magnetizazio induktantzia.
- L_y Harilkaturik gabeko nukleo zati horizontalaren (uztarriaren) induktantzia.
- N Espira kopurua.
- R_0 Erresistentzia homopolarra.
- R_m Magnetizazio erresistentzia.
- R_{primA} A faseko harilkatu primarioaren erresistentzia.
- R_{primB} B faseko harilkatu primarioaren erresistentzia.
- R_{primC} C faseko harilkatu primarioaren erresistentzia.
- R_{sekA} A faseko harilkatu sekundarioaren erresistentzia.
- R_{sekB} B faseko harilkatu sekundarioaren erresistentzia.
- R_{sekC} C faseko harilkatu sekundarioaren erresistentzia.
- R_y Harilkaturik gabeko nukleo zati horizontalaren (uztarriaren) erresistentzia.
- R_Z Zutabe bakoitzaren erresistentzia.
- S Sekzioa.

U_{AB} A eta B faseen arteko tentsio konposatua.

U_{BC} B eta C faseen arteko tentsio konposatua.

U_{CA} C eta A faseen arteko tentsio konposatua.

V_A A faseko tentsio sinplea.

V_B B faseko tentsio sinplea.

V_C C faseko tentsio sinplea.

V_n Neutroaren tentsio desplazamendua (Tentsio homopolarra).

Taulen Zerrenda

1.1	Transformadoreen konexio motak.	21
2.1	Transformadorearen geometria alternatibak.	23
2.2	Transformadorea ezaugarritzeko metodoen alternatibak.	26
2.3	Transformazio duala.	30
2.4	Transformadorearen inpedantzia baliokideak lortzeko saiakuntzak	36
2.5	Transformadorearen kapazitantzia baliokideak lortzeko multi-testa	45
2.6	Transformadorearen kapazitantzia baliokideak lortzeko saiakuntzak	45
2.7	Zirkuitulaburreko saiakuntzetatik lortutako parametroen balioak.	50
2.8	Osagai homopolarren doitutako parametroak.	53
2.9	Nukleoko erresistentzien doitutako parametroak.	59
2.10	Nukleoko erreaktantzien kurba karakteristikoen parametroak.	59
3.1	Barne orduak.	73
3.2	Amortizazioak.	74
3.3	Gastuak.	75
3.4	Kostu totala.	75

Irudien Zerrenda

1.1	APERT eta GSGIH-en logotipoak.	2
1.2	FPL-aren eskema orokorra.	4
1.3	Plataforma experimentalaren argazkia.	5
1.4	Tentsio-desoreka akats monofasikoarekin.	6
1.5	Fortescueren teorema.	15
1.6	Hiru transformadore monofasikoko transformadore trifasikoa.	17
1.7	Hiru zutabeko transformadore trifasikoa fluxu magnetikoekin.	17
1.8	Bost zutabeko transformadore trifasikoa fluxu magnetikoekin.	18
1.9	Lau zutabeko transformadore trifasikoa fluxu magnetikoekin.	19
1.10	<i>Shell</i> motako transformadore trifasikoa fluxu magnetikoekin.	19
1.11	Konexio motak.	21
2.1	Proposatutako irtenbidea.	27
2.2	Transformadorearen eredu monofasiko sinplifikatua.	28
2.3	Hiru zutabeko transformadorearen fluxu magnetikoak.	29
2.4	Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu magnetiko baliokidea.	30
2.5	Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu magnetiko baliokidea nodo eta maiekin.	31
2.6	Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu elektriko dual ideala.	31
2.7	Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu elektriko duala.	32
2.8	Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu elektriko dual osoa.	33
2.9	MAL-ean erabiliko den transformadorearen zirkuitu elektriko baliokidea.	34
2.10	Induktantzia ez linealaren azpisistema.	35
2.11	A faseko zirkuitulaburreko saiakuntzaren diagrama.	37
2.12	Zero-sekuentziako saiakuntzaren diagrama.	38
2.13	Zutabeko inpedantzia lortzeko saiakuntza.	40
2.14	Uztarriko inpedantzia lortzeko saiakuntza.	41
2.15	Hutseko saiakuntzako zirkuitu sinplifikatua.	42
2.16	Hutseko saiakuntzaren diagrama.	43

2.17 CINERGIA GE & EL+15 vAC/DC.	47
2.18 Tecno-traforen TT 10 KVA TRAF0 III IP-23.	47
2.19 YOKOGAWA DL850EV Osziloskopioa.	48
2.20 Zirkuitulaburreko saiakuntza egiteko montaketa.	48
2.21 Zero-sekuentziako saiakuntza egiteko montaketa.	51
2.22 Hutseko saiakuntzak egiteko montaketak.	54
2.23 Hutseko saiakuntzetan osziloskopioak neurtutako uhinak.	54
2.24 Hutseko saiakuntzeetako uhinen Fourier transformatua.	55
2.25 Zero-sekuentziako saiakuntza 21,87 V-eko elikadurarekin.	60
2.26 A faseko zirkuitulaburreko saiakuntzaren simulazioa.	60
2.27 Zero-sekuentziako saiakuntzaren simulazioa.	62
2.28 Zamatutako transformadorearen simulazioa.	63
2.29 Zamatutako transformadorearen saiakuntza egiteko montaketa.	66
2.30 MAL-aren Gantt diagrama.	72

Grafikoen zerrenda

2.1	Harilkatuetako erresistentziak (R_{prim} eta R_{sek}).	49
2.2	Ihes induktantziak (L_{ihes}).	50
2.3	Erresistentzia homopolarra (R_0).	52
2.4	Induktantzia homopolarra (L_0).	53
2.5	Zutabeko erresistentzia (R_z).	56
2.6	Zutabeko induktantzia (L_z).	57
2.7	Uztarriko erresistentzia (R_y).	58
2.8	Uztarriko induktantzia (L_y).	59
2.9	Zirkuitulaburreko saiakuntzaren simulazio-emaitzak.	61
2.10	Zero-sekuentziako saiakuntzaren simulazio-emaitzak.	62
2.11	Tentsio orekatuekin elikatutako transformadorearen simulazio-emaitzak.	63
2.12	Tentsio desorekatuekin elikatutako transformadorearen simulazio-emaitzak.	64
2.13	1 V-eko desorekarekin elikatutako transformadorearen simulazio-emaitzak.	65
2.14	Tentsio orekatuekin elikatutako transformadorearen saiakuntza-emaitzak.	66
2.15	Tentsio orekatuekin elikatutako transformadorearen simulazio eta saiakuntza-emaitzak.	67
2.16	Tentsio desorekatuekin elikatutako transformadorearen saiakuntza-emaitzak.	68

Memoria

1.1 Sarrera

Hiru zutabeko transformadore baten modelizazio xehatua saiakuntza esperimentalen bidez izeneko Master Amaierako Lan (MAL) honek plataforma esperimental bateko transformadore baten eredu digitala garatzea eta ezaugarritzea du helburu. Eredua garatu eta balidatzeko metodo esperimentalak erabiliko dira, garatutako ereduaren funtzionamendua bermatuz.

Dokumentua lau atal nagusitan dago banatuta: Memoria, Metodologia, Alderdi ekonomikoak eta Ondorioak. Lehenengoan, proiektuaren testuinguru orokorra azalduko da, ostean MAL-aren helburu eta irismena definituko dira, honek dakartzan onurekin jarraitzeko. Behin lanaren testuinguru orokorra azalduta, teknologien artearen egoera aztertuko da.

Metodologiako atalean, artearen egoeran ikusitako alternatiba ezberdinen analisia gauzatuko da eta aukeraketa egin ostean, proposatutako irtenbidea aurkeztuko da. Bertan ereduaren garapena ikusiko da eta eredu digitalaren parametroak lortzeko egin beharrezko saiakuntzak ere azalduko dira. Honekin batera lortutako emaitzak aztertu eta balidatu egingo dira saiakuntzen eta simulazioen bidez. Metodologiarekin bukatzeko, lana garatzeko egin beharrezkoen deskribapena dokumentatu da. Ondoren proiektuari lotutako alderdi ekonomikoak aipatu dira, kostu ezberdinen desglosea eginez. Bukatzeko lan honetatik ateratako ondorioak azaldu dira, etorkizuneko lan-ildo ezberdinak proposatuz.

1.2 Testuingurua

Dokumentu honetan, *Global Smart Grid Innovation Hub* (GSGIH) eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) *Applied Electronics Research Team* (APERT), elektronikan oinarritutako ikerkuntza taldearen arteko elkarlanetik sortutako proiektu baten oinarritzen den MAL aurkezten da.

GSGIH-ak Potentzia-Elektronika bidez Kontrolatutako Sarea izenpean aurkeztu zuen proiektua, dagoeneko existitzen diren sareen ustiapena eta kapazitatea optimizatzeko asmoz, beti ere potentzia-elektronikak eskaintzen dituen erremintez baliatuz.

Proiektuaren helburua, hain zuzen ere, *Flexible Power Link* (FPL) bat garatzea da, honek dituen gailu eta osagai guztien diseinua eta saiakuntzak eginez. Proiektuan behar izango diren gailuak aztertzeko eta probak egin ahal izateko, behe tentsioko plataforma esperimental bat eraiki da. Dokumentu hau plataforma esperimentalean dagoen transformadorearen azterketara bideratu da.



1.1 Irudia: APERT eta GSGIH-en logotipoak.

1.2.1 Global Smart Grids Innovation Hub

Lankidetzaren publiko-pribatuko gunea da, Bilbon kokatua, sare elektriko adimendunetan berrikuntza eta I+G+b bizkortzeko helburuarekin sortua. Honen eragile nagusia Iberdrola taldea da Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, baina 2021 urtean proiektuari hasiera eman zitzaienetik dagoeneko ehunka talderekin elkarlanean aritzen dira; enpresa, *start-up* eta unibertsitate [1].

Ekimenak 200 profesional baino gehiagoren potentzial berritzailea biltzen du etorkizuneko sare elektrikoaren erronkekin lotutako I+G+b proiektuen garapenean. Proiektu hauen helburu nagusiak digitalizazioa, datuen tratamendua eta sare elektrikoak

kontsumo-eredu berriei (mugikortasun elektrikoari eta autokontsumoari besteak beste) sendotasuna eta malgutasuna ematen dien erantzunak bilatzea dira.

1.2.2 APERT

Bilboko Ingeniaritza Eskolako Elektronikan Oinarritutako Ikerketa Taldea da APERT. Eskolako teknologia elektronikoko eta ingeniaritza elektrikoko irakasle eta ikertzaileek osatzen dute taldea, bi ikerkuntza-ildo nagusitan banatuta:

- **Zirkuitu birkonfiguragarriak eta Systems On-chip**

Ikerketa-lerro honetan ahalmen handiko FPGAak erabiltzen dira sistema digitalak zirkuitu integratu bakar batean integratzeko eta gailu horiek birkonfiguratzeko duten gaitasuna aprobeitzatzeko.

Taldea hainbat gai ikertzen ari da, hala nola; sintesirako diseinua, *core*-ak elkarrekin lotzeko arkitekturak eta akatsekiko tolerantzia teknikak.

- **Energia-bihurgailuetarako potentzia- eta kontrol-zirkuituak**

Ikerketa-lerro honetan, energia elektrikoa sortzeko, eraldatzeko, garraiatzeko eta biltegitratzeko erabiltzen diren potentzia-sistema elektronikoen portaera aztertu eta diseinatu egiten da.

Talde honek urte askotan zehar erabili izan diren bihurgailuen alternatiba aurreratuak aztertzen ditu.


MAL hau bigarren ikerketa-lerroan dago kokatuta, energia-bihurgailuetarako potentzia eta kontrol zirkuituen lerroan.

1.2.3 Flexible Power Link

Sistema elektrikoen malgutasuna sorkuntza zentralen esku egon da tradizionalki, eskariak egindako aldaketei moldatzera beharturik. Izan ere, beharrezkoa da sorkuntza eta eskariaren arteko egokitzea sistemaren maiztasuna eta tentsioak konstante mantentzeko. Hala ere, sistema elektrikoak aldaketa handia pairatzen ari da azkeneko urteetan, aldizka funtzionatzen duten eta sisteman zehar sakabanututa dauden energia berriztagarri zentral berriak gehituz [2].

Egoera berri honek malgutasun-mekanismo berriak dakartza, eta hauekin batera sistemarentzat onuragarriak diren zenbait egoera, hala nola: kontsumitzaileek energiagatik ordaindutako prezioen murrizpena, karbono dioxido isurien txikitzea (sorkuntza berriagarriaren txertaketari esker) eta hornikuntzaren kalitate eta segurtasun maila hobek. Hauengatik guztiengatik, anitzak dira gaur egun sistema elektrikoan txertatutako malgutasun-mekanismoak: Tentsioaren kontrolagailuak, kongestioen arintzea, orekatze sistemak, irla moduan funtzionatzeko sistemak, eta abar [3].

Testuinguru honetan garatu da MAL honetan aipatutako FPL-a (1.2 irudia), potentzia-elektronikako bihurgailu bat. Gailua *back to back* bihurgailu bat da Korrante Alterno (AC) bi etapa ezberdinekin Korrante Zuzen (DC) bus batez lotua.



1.2 Irudia: FPL-aren eskema orokorra.

FPL honek potentzia aktiboaren kontrola ahalbidetzen du bi noranzkoetan, gailuaren alde batetik bestera, eta baita potentzia errektiboaren sorkuntza-kontsumo independentearen kontrola gailuaren alde bakoitzean. Honi esker, banaketa-sareko area ezberdinak konektatu daitezke, beste era batera ezinezkoa litzatekeena AC sistemetan. Beraz, FPL-arekin sistemaren malgutasuna handitu egiten da potentzia-fluxuei norabiderik aproposena ezarriz une oro [4].

Aurreko abantailez gain, funtzionatzeko era desberdinak ahalbidetzen ditu bihurgailuak, bai korrante-iturri, zein tentsio-iturri gisa. Banaketa-sarean arazorik ez badago FPL-a korrante-iturri gisa egingo du lan, lotzen dituen zona ezberdinen arteko potentzia trukatzea kontrolatuz.

Sare elektrikoan kontingentziaren bat gertatzen denean aldiz, sistemak akats bat jasaten duenean adibidez, babesgailuek matxura isolatu ostean FPL-ak matxuratutako zona elikatuko du. Bihurgailua hortaz, saretik deskonektatu beharko da eta tentsio-iturri moduan funtzionatzen hasi, akatsa deuseztatu eta hornikuntza mantenduz dokumentuan aurrerago azalduko den bezala.

FPL-a beraz, oso gailu baliagarria izan daiteke malgutasuna behar den gunetan; sarearen puntu ahuletan edo akatsak oso ohikoak diren sareko konexio puntuetan, non horniketa-sistema osagarriak behar diren.

1.2.4 Plataforma experimentalala

Proiektuan egindako aurrera pausoak konprobatu eta balidatzeko asmoz plataforma experimental bat prestatu da unibertsitatean (1.3 irudia).

Bertan FPL-an egongo diren osagaiak daude, behe tentsiora egokituak; bihurgailua, harmoniko iragazkia, transformadorea, π linea baliokidea eta karga erresistiboak. Hauetaz gain, froga ezberdinak egin ahal izateko tentsio-iturri programagarri bat ere badago.




1.3 Irudia: Plataforma experimentalaren argazkia.

1.2.5 Funtzionamendua akats egoeran

Proiektuaren oinarritzko ideia, akats monofasiko egoerako funtzionamendua da, hauek baitira sarean aurkitu daitezkeen akatsik ohikoenak [5]. Sistemari mota honetako akats bat detektatzen denean FPL-ak hornidura mantentzeko estrategia bat jarraituko du.

Akatsa duen faseko tentsioa txikitu egingo da (idealki 0 V-era helduz) eta gainerako faseen tentsioa aldiz handitu egingo da. Horretarako, tentsio homopolarra injektatuko da neutroan, neutroaren erreferentzia tentsioa mugituz (1.4 irudia), beti ere tentsio konposatuak orekan mantenduta.



1.4 Irudia: Tentsio-desoreka akats monofasikoarekin.

Estrategia hau aplikatuta, akatseko korrontea txikitu egingo da (akatseko fase eta neutro arteko tentsioa minimizatuz), eta tentsio konposatuen triangelua konstante mantenduko da. Hortaz, hornikuntza aurretik Dyn motako transformadore bat erabilita, hornikuntzak ez luke akatsa nabarituko. Elikadura beraz bermatuta egongo litzateke sistemak akats monofasiko bat pairatzen duen bitartean.

1.3 Helburuak eta irismena

Atal honetan proiektu honen garapenak dituen helburuak azalduko dira, baita proiektuarekin lotuta dauden Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) aipatu ere. Horiekin batera, proiektuaren irismena definituko da.

1.3.1 Helburuak

MAL honen helburu nagusia **unibertsitateko plataforma esperimentalean dagoen transformadorearen eredu digital xehatua lortzea** da, gailuaren portaera ondo aurreikusiko duena.

Helburu nagusia lortzeko, jarraian azaltzen diren azpihelburuak proposatu dira:

- **Transformadorearen zero-sekuentziako inpedantzia definitzeko metodologia garatu.** Transformadorearen efektu elektromagnetiko gehienak ezaugarritzeko beharrezkoak diren saiakuntzak oso ezagunak izaten dira, inpedantzia homopolarra berriz, ez da horren ezaugarri ohikoa. Proiektuan ezinbestekoa da zero-sekuentziako inpedantzia ondo ezaugarritzen jakitea eta beste transformadore batzuei aplikagarria izan daitekeen metodologia on bat bilatzea.
- **Ikerkuntza-lanetan jarraitu beharreko pausoak eta metodologian sakontzea.** Industria mundua produktuetara dago zuzenduta gehienetan, eta ikerkuntzan berriz, jakintza eta berrikuntza bilatzen dira. Honek lan egiteko era ere ezberdina izatea dakar.
- **Laborategian saiakuntzak egiten trebatu eta bertako material eta tresneria erabiltzen ikasi.** Ikasketa urteetan zehar oinarri teoriko sendoak lortzen badira ere, laborategi lanetan gabeziak nabariak dira. Proiektua aukera ezin hobea da gaitasun hauek garatzeko.
- **MATLAB eta Simulink tresnak erabiltzen ohitu.** Dagoeneko ikasketetan tresna hauek erabiltzen ikasi den arren, hauekin trebetasuna lortzea ezinbestekoa da simulazio, kalkulu zein datuen azterketarako.

1.3.2 Garapen Jasangarriko Helburuak

Nazio Batuen Erakundeak 2015 urtean hartu zituen bere gain 17 GJH-ak. Hauen xede nagusiak mundu mailan pobrezia-rekin bukatzea, planeta zaintzea eta 2030 urterako munduko pertsona guztiek bakean eta oparotasunez biziko zirela bermatzea direlarik [6].

Hauekin batera UPV/EHU-k hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko konpromisoa gehitu du 17+1 edo 18 GJH-aren bidez [7]. Helburu honekin euskararen presentzia bermatu nahi da unibertsitateko gradu eta gradu-ondokoetan, euskarazko klaseak eskainiz eta hizkuntza honetan egindako lan akademikoak sustatuz.

Proiektu honek, ondoren azaltzen diren GJH-ak betetzen laguntzen du:

- **7. GJH: Energia irisgarria eta ez-kutsatzailea**

Proiektuak bat egiten du 7. GJH-arekin, izan ere, garatzen ari den FPL-ak bezeroen hornikuntza kalitatea eta fidagarritasuna hobetzea du helburu. Gainera, banaketa-sarean energia sorgailu berriztagarriak txertatzea ere errazten du, energia-iturri ez-kutsakorak sustatuz.

- **11. GJH: Hiri eta komunitate jasangarriak**

MAL honetan azaltzen den proiektua lotura ere badu 11. GJH-arekin, *smart grid*-ak ezinbesteko bilakatu baitira hiriak jasangarriagoak bilakatzeko. Aurkeztutako garapenari esker, energiaren kudeaketa hobea lortu daiteke, energia berriztagarriak txertatzea ahalbidetuz, eta beraz, hiriek duten karbono aztarna txikituz.

- **18. GJH: Hizkuntza eta kultura aniztasuna**

MAL-a 18. GJH-arekin bat egiten du, dokumentua bere osotasunean euskaraz idatzita baitago. Hizkuntza hau erabiltzea erabaki izanak unibertsitatearen hizkuntza aniztasuna indartzen du, gradu ondoko lanetan euskararen presentzia bermatuz.

1.3.3 Irismena

Proiektua aurrera joan ahala, honen irismenaren edukia ere zehaztuz joan da, proiektua bukatzerakoan ondorengo puntuak barneratzen dituelarik:

- GSGIH-ak luzatutako banaketa-sarearen ereduaren eta bertan dagoen transformadorearen beharrianak aztertu.
- Transformadore trifasikoen konexio mota eta geometria ezberdinen artearen egoera aztertu.
- Hiru zutabeko transformadore ereduaren topologia garatu. Saturazio-fenomenoa eta galerak modelizatuko dira, histeresi-zikloa eta efektu kapazitiboak berriz ez dira kontuan hartuko.
- Eredua parametrizatu ahal izateko plataforma esperimentaleko transformadoreari beharrezko saiakuntzak gauzatu.
- Transformadorearen eredu digitalaren balidazioa, simulazio ezberdinen bidez.

1.4 Proiektuaren onurak

Transformadorearen eredu digital baten garapenak hainbat onura eskaintzen ditu, alor tekniko, ekonomiko eta sozialak barne hartuta. Eredu honek transformadorearen analisi zehatz eta sakonagoa egitea ahalbidetzen du, diseinuaren eta mantentze-lanen optimizazioa erraztuz, kostuen murrizketan eta eraginkortasun operatiboaren hobekuntzan lagunduz. Gainera, bere ezarpenak eragin positiboa du jasangarritasunaren bidean.

Jarraian, arlo horietako onura espezifikokoak zehazten dira. Aipagarria da, MAL-aren onurak GSGIH-ak proposatutako proiektuaren onurekin daudela lotuta.

1.4.1 Onura teknikoak

- **Banaketa sarearen ustiapenaren optimizazioa.**

GSGIH-ak proposatutako bihurtgailuari esker, FPL-a zeharkatzen duten potentzia-fluxuak moldatu ahal izango dira sareen operazio puntua optimizatzuz.

- **Hornikuntza-etenaldiak gutxitzea.**

Proiektuan azaldutako akats-egoerak funtzionamendua aplikatuta, hornikuntza bermatu egiten da akats monofasikoak gertatzen direnean ere.

- **Zehaztasun handiko simulazioak.**

Modelizazio xehatuari esker zehaztasun handiko simulazioak egin daitezke, transformadorea elikatzen duten tentsioak desorekatuak badira ere.

- **Transformadorearen diseinu eta mantentze-lanen optimizazioa.**

Gailuaren eredu zehatzagoa izateak honen portaera hobeto aurreikusiko du, transformadoreari hobekuntzak bilatzen lagunduz.

1.4.2 Onura sozialak

- **Hornikuntza-etenak murriztea.**

Onura teknikoetan azaldu den bezala, proiektu honen garapenari esker, kontsumitzaileek pairatzen dituzten hornikuntzak-etenak gutxitu daitezke, zerbitzuaren kalitatea hobetuz.

- **Karbono aztarna txikitzea.**

Sistema optimizatzen duten gailuak erabilia, energia elektrikoaren sektoreak duen karbono aztarna txikitu egiten da, GJH-ekin bat eginez.

1.4.3 Onura ekonomikoak

- **Gastu operazionalak txikitzea.**

Akats monofasikoak daudenean hornikuntzarekin jarraitu eta akatsa ezabatzeko gai den sistema bat erabiltzeak, fenomeno hauei lotuta doazen gastuak murriztea ahalbidetzen du.

- **Banaketa-sarearen optimizazioa.**

Proiektuan proposatzen den FPL-ari esker sare elektrikoaren funtzionamendua optimizatuko da, honek dituen gastuak txikituz.

- **Transformadorearen bizitza erabilgarria luzatzea.**

Eredu xehatuari esker, desoreka ezberdinekiko transformadoreak izango duen portaera aurreikusi daiteke eta gailuarentzat kaltegarriak izan daitezkeen egoerak saihestu.

1.5 Artearen egoera

Dokumentuaren atal honetan, potentzia-transformadoreen artearen egoera aztertu da. Konexio mota desberdinen propietateak sailkatuko dira, eta gaur egun erabiltzen diren transformadoreen teknologia eta topologia ezberdinak aztertu dira, makinak eskaintzen dituen aldaera ezberdinak landuz.

1.5.1 Transformadorea

Transformadoreak potentziako AC zirkuitu elektrikoaren tentsio maila aldatzeko erabiltzen dira normalean, baina badituzte beste abantaila eta erabilera batzuk. Izan ere, zirkuitu elektrikoak isolatu egiten dituzte, hau da, primario eta sekundarioaren arteko lotura fisikoa desagertarazten dute.

Honetaz gain, transformadoreen harilkatuek iragazi lana ere egiten dute harmonikoei dagokienez. Primario eta sekundarioaren arteko tentsioak desfasatzeko ere erabili daitezke gailua, edota sekuentzia simetrikoen analisia egiterakoan, zero-sekuentziako tentsioaren bidea kentzeko ere erabili daitezke.

Transformadoreek dituzten aldaera eta konfigurazioak ondo ulertzeko ezinbestekoa da makinaren oinarriko printzipioak ondo ulertzea. Transformadoreek 2 osagai nagusi dituzte; nukleoa eta harilkatuak. Lehenengoa burdinez egiten da eroale ferromagnetiko bikaina baita eta bigarrena kobrez, oso eroale elektriko aproposa izateagatik. Gailuaren funtzionamendu orokorra, bi lege fisikoren bidez azaldu daitezke:

Solenoida batetik korrontea igarotzen denean bere barnean eremu magnetiko bat eratzen da **Amperen legearen arabera**. Eremu magnetikoa korrontearikiko proportzionala da, eta hortaz korrontea sinusoidala bada, eremu magnetikoa ere sinusoidala izango da. Ampereren ekuazioa honako forma hau hartzen du solenoideen kasuan:

$$B = \frac{\mu \cdot I \cdot N}{L} \quad (1.1)$$

Non B eremu magnetikoa den, μ solenoidearen barneko materialaren iragazkortasun magnetikoa, I korrontea, N espira kopurua eta L luzera.

Askotan, Amperen legea beharrez, **Hopkinsonen legearen** bidez justifikatzen da lehen fenomeno hori biak baliokideak badira ere. Hopkinsonen legea Ohmen legearen antzekoa da, baina eremu magnetikoan lan eginda. honako forma hau du legeak:

$$\mathcal{F} = \mathfrak{R} \cdot \Phi \quad (1.2)$$

Kontuan hartuta, indar magnetoeragilea ($\mathcal{F} = N \cdot I$) dela, erreluktantzia magnetikoa ($\mathfrak{R} = \frac{L}{\mu \cdot S}$), non S sekzioa den eta fluxu magnetikoa ($\Phi = B \cdot S$). Erraz ikus daiteke bi ekuazioen arteko baliokidetasuna.

Transformadorearen funtzionamendua ulertzeko beharrezko beste legea **Faraday-Lenzena** da. Honen arabera, fluxu magnetikoaren aldaketak honi oposatzen zaion indar elektroeragile bat sortuko du zirkuitu elektrikoan:

$$e = -N \frac{d\Phi}{dt} \quad (1.3)$$

Horrela beraz, primarioa tentsio sinusoidal batekin elikatuta, korrante sinusoidal bat ere agertuko da primarioko harilkatuan. Korranteak fluxu sinusoidal bat sortuko du nukleoan zehar, eta honek era berean tentsio sinusoidal bat sortuko du sekundarioan.

Behin hau ondo ulertuta, makinak dituen aldaera eta funtzionalitate ezberdinak aurkeztu dira jarraian:

1.5.2 Harmonikoen eragina

Sarera konektatutako bihurtailuak kalitate irizpide batzuk bete behar dituzte bai harmoniko zein uhin formari dagokienez, eta beraz, alderantzgailuaren konmutazio maiztasunaren eragina txikitu edo desagertarazteko ezinbestekoa da bihurtailuaren irteeran iragazki bat txertatzea.

Aplikazio hauetan iragazkirik ohikoenak L, LC eta LCL-ak dira [8]-ren arabera, hala ere badaude LLCL bezalako filtro konplexuagoak erabiltzearen abantailak [9]. Iragazkiaren ordena handitzen doan heinean, harmonikoen maila gailuaren irteeran txikituz doaz, baina era berean, erresonantzia arazoak indar handiagoa hartuz doaz.

Proiektu honetan LC iragazki bat erabiltzea erabaki da transformadorearen harilkatuek bigarren inдукtantzia bat bezala lan egiten dutelarik, horrela [10]-n proposatzen den bezala, LC + transformadorea izango da sistemaren iragazkia.

Transformadorea iragazkiaren parte izanda harmonikodun tentsioak izango ditu bere sarreran eta beraz, ezinbestekoa da harmonikoek transformadorearen funtzionamenduan izango duten eragin aztertzea.

Ikerketa ezberdinak egin dira honen inguruan korrante [11] eta tentsio [12] harmonikoak aztertuz eta guztien ondorioak nahiko antzekoak dira. Harmonikoek transformadorearen galerak (bai nukleo zein harilkatuenak) handitu egiten dituzte makinaren errendimendua txikituz. Honetaz gain badaude harmonikoak transformadorearen bizi erabilgarria laburtu dezaketela baieztatzen dituzten artikulua ere [13], transformadoreak pairatzen dituen tenperatu igoera gehigarri horiek direla eta.

Galeren handitzea zenbatezteko asmoz, [11]-k saiakuntza bat egiten du, transformadore bat ordena desberdineko harmonikoekin elikatuz. Kalkulu horietan, galeren %66,37-a harmonikoak zituzten iturri, makina osoaren errendimendua %0,68 txikituz.

Nukleo material ezberdinak aztertu dituzten artikulua ere badaude [14], M 330 50-A materiala barne. Honetan argi ikusten da uhin formaren perfekzioak duen garrantzia eta saturazio-egoeran harmonikoen fenomenoaren areagotu egiten dela arazoa larriago bihurtuz.

1.5.3 Tentsio desoreken eragina

Sistemaren funtzionalitatea dela eta, aplikazio honek tentsio desorekatuekin lan egitea eskatzen dio sistemari (akats monofasikoak gertatzen direnean), eta hortaz transformadoreari ere. Transformadoreak tentsio desoreka handiekin (fase baten 0V eta gainerakoetan tentsio konposatuak) portaera ona izan behar du.

Desorekak aztertzeko **Fortescue-ren teorema** erabili ohi da, desorekatua den sistema bat, hiru sistema simetrikotan bihurtzeko (1.5 irudia). Hauei konponente simetrikoak deritze eta honako hauek dira:

- **Sekuentzia zuzeneko edo positiboko konponentea**


3 modulu berdineko fasoreak dira, 120° -ko desfasearekin haien artean (sistema orekatua) eta jatorrizko sistemaren fase-sekuentzia berdina duena (normalean A-B-C).

- **Sekuentzia alderantzizko edo negatiboko konponentea**

3 modulu berdineko fasoreak dira, 120° -ko desfasearekin haien artean (sistema orekatua) baina jatorrizko sistemaren alderantzizko fase-sekuentzia duena (normalean A-C-B).

- **Zero sekuentziako edo sekuentzia homopolarreko konponentea**

3 modulu berdineko fasoreak dira, haien artean 0° -ko desfasea dutena.



1.5 Irudia: Fortescueren teorema.

Zuzeneko eta alderantzizko sekuentziak agertzen direnean bakarrik, tentsio guztien batura 0 izaten jarraitzen du, bi sistema hauek independenteki orekatuak direlako. Sekuentzia homopolarra agertzen denean aldiz, hauen batura sekuentzia homopolarreko tentsioa izango da hiru aldiz, hain zuzen ere. Homopolarra beraz, *offset* bezalako bat balitz bezala ulertu daiteke, fasoreen sistema osoa desplazatzen duena.

Orokorrena bihurtzeko egiteko ondorengo ekuazio matrizialak erabiltzen dira, non $a = 1 \angle 120^\circ$ den:

$$\begin{pmatrix} \underline{V}_A \\ \underline{V}_B \\ \underline{V}_C \end{pmatrix} = \begin{pmatrix} 1 & 1 & 1 \\ 1 & a^2 & a \\ 1 & a & a^2 \end{pmatrix} \cdot \begin{pmatrix} \underline{V}_{A0} \\ \underline{V}_{A1} \\ \underline{V}_{A2} \end{pmatrix} \quad (1.4)$$

$$\begin{pmatrix} \underline{V}_{A0} \\ \underline{V}_{A1} \\ \underline{V}_{A2} \end{pmatrix} = \frac{1}{3} \cdot \begin{pmatrix} 1 & 1 & 1 \\ 1 & a & a^2 \\ 1 & a^2 & a \end{pmatrix} \cdot \begin{pmatrix} \underline{V}_A \\ \underline{V}_B \\ \underline{V}_C \end{pmatrix} \quad (1.5)$$

Fortescueren teorema aplikatuta, sisteman egongo den desoreka konponente simetrikoe-tan banatu da (unitateko balioetan), honako forma hartuta:

$$\begin{pmatrix} \underline{V_{A0}} \\ \underline{V_{A1}} \\ \underline{V_{A2}} \end{pmatrix} = \begin{pmatrix} 1 \angle 180^\circ \\ 1 \angle 0^\circ \\ 0 \angle 0^\circ \end{pmatrix} \quad (1.6)$$


Sisteman egongo diren konponente simetrikoak zuzena eta homopolarra izango dira ba-tik bat, beraz, konponente homopolarreko desorekak izango dira sisteman protagonistak. Honek sentzu handia du, sistemaren funtzionalitate bat tentsio homopolarrak injektatzea dela kontuan hartuta.

Konponente homopolarreko desorekek, korrante homopolar handiak sor dezakete pri-mario eta sekundarioko neutroetan, eta honekin batera fluxu magnetiko homopolar handiak (transformadorearen inpedantzia homopolarra txikia bada) [15]. Honek transfor-madorearen gainberoketa eragin dezake. Gainera, nukleoan desoreka bat izateak, fluxu magnetikoaren dentsitatea handitzen du, eta, beraz, nukleoko fluxua asimetrikoagoa bihurtzen da, harilkatuen eta nukleoko galerak handituz [16].

1.5.4 Nukleo-egiturak

Transformadoreak tentsio desorekatuekiko duen portaera, transformadorearen nu-kleoaren egiturarekin estuki lotuta dago. Izan ere nukleo geometria ezberdinak aurkitu daitezke transformadore trifasikoen artean; transformadore monofasiko bana fase bakoit-zeko, hiru zutabedun transformadorea, lau zutabekoa, bost zutabekoa eta *shell* motako transformadorea.

Hauetatik sinpleena **transformadore bankua** da, fase bakoitzeko transformadore mo-nofasiko independente bat erabiltzen duena (1.6 irudia). Modelo honetan hiru nukleoak elkarren independenteak dira eta hortaz, tentsioa desorekatuek ez dute inolako arazorik ekarriko, beti ere, transformadorearen isolamendua eta diseinua orokorrean akats egoe-rako tentsioen moduluak jasateko prest baldin badago.




1.6 Irudia: Hiru transformadore monofasikoko transformadore trifasikoa.

Transformadore trifasikorik ohikoena **hiru zutabekoa** da, honek duen tamaina eta material kantitate txikia dela eta. Egitura honetako transformadoreetan, fase bakoitzeko primario eta sekundarioa harilkatzen dira zutabe bakoitzean (1.7 irudia).

Egitura honek arazo larriak izan dezake desorekekin, izan ere, tentsio desorekek fluxu magnetiko desorekatu bat sortuko dute, eta hortaz fluxu magnetiko horrek konponente zuzen, alderantzizkoa eta homopolarra izan ditzake.

Sekuentzia zuzeneko osagaiak batzerakoan 0 perfektu bat lortzen da, eta beraz egoera orekatu baten, hiru faseetako fluxu magnetikoak goiko uztarrira heltzen direnean elkar deuseztatu egiten dute. Alderantzizko sekuentziako konponentea izanda ere, fluxuak elkar anulatzen jarraituko dute, eta beraz transformadorea egokia izan daiteke mota honetako desorekak agertzen direnean.



1.7 Irudia: Hiru zutabeko transformadore trifasikoa fluxu magnetikoekin.


Arazoa sekuentzia homopolarreko konponentea agertzen denean dago. Homopolarra egonez gero, hiru fluxuen batura hiru aldiz fase bakoitzeko sekuentzia homopolarreko fluxua izango da, baina fluxu honek ez du ibilbidea ixteko biderik aurkituko nukleoan eta

beraz, airetik eta transformadorearen karkasatik (egotekotan) itxiko du bidea (1.7 irudia). Fluxu homopolarrak ikusiko duen bidea hortaz erreluktantzia handikoa izango da (material ez ferromagnetikoak zeharkatu beharko baititu) honek dakarren bero galerekin. Nukleo egitura honek beraz, ez du portaera egokiena izango konponente homopolarra dakarren desorekak daudenean.

Lau eta bost zutabedun transformadoreak egituraz hiru zutabeko nukleoaren antzekoak dira; erdiko hiru zutabeak harilkatuak jartzeko erabiltzen dira gainerakoak libre geratzen direlarik (1.8 eta 1.9 irudiak)


Fluxu homopolarrari bueltatzeko bidea eskaintzeko daude diseinatuta nukleo hauek, erreluktantzia txikiko bide bat eskaintzen baitiote fluxu homopolarrari, hiru zutabeko transformadoreak zituen arazoak ekidinez. Nukleo hauen portaera beraz, transformadore banku trifasikoaren antzekoagoa izango da baina kasu honetan faseen arteko elkar ekintza edo dependentzia egongo da, hirurek zirkuitu magnetiko berdina partekatzen baitute.

Lau eta bost adarreko transformadoreen arteko aldea bistakoa da, baina matematikoki oso antzekoak dira. Bost zutabeko nukleoak fluxuak era simetrikoago baten banatzen ditu, eta ez fluxuak bakarrik, masa zentroa ere simetrikoa da, honen manipulazioa sinplifikatuz.



1.8 Irudia: Bost zutabeko transformadore trifasikoa fluxu magnetikoekin.


Lau zutabekoa nukleoak aldiz fluxu homopolar osoa zutabe berdinetik bideratzen du (zutabe hau beraz, bost zutabeko nukleoak dituen zutabe gehigarri horiek baino sekzio handiagoa izan beharko du), eta transformadorearen masa zentroa harilkatuen pisuaren menpe egongo da.



1.9 Irudia: Lau zutabeko transformadore trifasikoa fluxu magnetikoekin.

Azkenik **shell motako nukleoa** (gaztelera, "acorazado") ere topa daiteke. Honen egiturak aurrekoak baino askoz burdin gehiago du, eta beraz pisutsuagoa eta garestiagoa da, hala ere funtzionamendua ulertzeko sinplea da eta transformadore bankuaren antzeko portaera du. Nukleo topologia honek harilkatu guztiak ditu zutabe zentrolean, baina honetaz gain beste bi zutabe handi ditu laburragoak diren habetxo lotuta (1.10 irudia).

Fase bakoitzak sortutako fluxua bide ezberdina du, zenbait puntutan gainerako faseen fluxuekin batzen den arren, baina inoiz ez dira hiru fluxuak puntu berdinean batzen. Fluxuak beraz elkarren independenteak ez badira ere, haien arteko elkar eragina minimoa dela baieztatu daiteke, hortaz desorekekin lan egiteko nukleo egitura interesgarria izan daiteke.



1.10 Irudia: *Shell* motako transformadore trifasikoa fluxu magnetikoekin.

1.5.5 Konexio mota

Makinaren portaeran eragin handia duen beste faktore bat, honek duen konexio elektriko mota litzateke, bai primario zein sekundarioaren aldetik. Transformadoreak konektatzeko hiru metodo baino ez daude:

- **Izarrean (Y)**

Konexio mota honetan fase bakoitzaren bukaera gainerako fase bukaerekin batzen da, puntu neutro bat eskuratuz (1.11 irudia, Y). Izar konexioan beraz, neutroa eskuratu daiteke nahi izanez gero. Neutroa lurrera konektatuta izatekotan (YN konexioa), tentsio eta korrante homopolarrentzako bidea eskaintzen du sekuentzia positibo eta negatibokoek duten inpedantzia berdinarekin (edo antzekoa behintzat).


- **Triangeluan (Δ)**

Delta izenarekin eta D/d letrarekin ere bada ezaguna konexio hau. Muntaketa honetan, fase bakoitzaren bukaera, beste faseetako baten hasierarekin konektatzen da, triangelu forma duen konfigurazio bat eskuratuz (1.11 irudia, D). Konexio mota honetan ezinezkoa da neutroa eskuratzea eta beraz, zero-sekuentziako tentsio eta korranteak ezin izango dute transformadorea zeharkatu.

- **Zigi-Zagan (Z)**






Konexio mota berezia da hau, lurreko konexio transformadoreetan erabiltzen dena gehien bat. Zigi-Zaga konexioa egin ahal izateko debanatu bi zati berdinetan banatuta egon behar da. Lehenik eta behin fase bakoitzeko lehen debanatu erdia izarrean baleude bezala konektatzen dira, baina hauen bukaera, ondoko faseko debanatueta konektatzen da alderantzizko norabidean, azken debanatu erdiaren bukaerak puntu neutro baten konektatzen direlarik (1.11 irudia, Z).

Horrela, konexio mota honek ere neutroa du eskuragarri. Izar konekzioarekin gertatzen den bezala, neutroa lurrera konektatzen bada (ZN konexioa) sekuentzia homopolarreko tentsio eta korranteek aurrera egiteko bidea izango dute, baina sekuentzia positibo eta negatibokoek dutena baino inpedantzia txikiagoarekin [17].



1.11 Irudia: Konexio motak.

Hiru konexio mota hauen arteko nahasketak eginda 1.1 taulan agertzen diren konfigurazioak lortu daitezke, hauen artean ohikoena Dy konexioa delarik [18]. Nabarmentzekoa da bai izar zein zigi-zaga konexioetan neutroa lurrera konektatu daitekeela, konfigurazio barietatea handituz, baina kasu hauek ez dira 1.1 taulan adierazi.

Konexio mota	Eskema
Yy	
Dd	
Dy - Yd	
Zy - Yz	
Zd - Dz	

1.1 Taula: Transformadoreen konexio motak.

Metodologia

2.1 Aukeren analisisia

Atal honetan MAL-a garatzeko aukeren arteko alternatiba ezberdinen analisisia gauzatu da, hauen artean egokiena hautatuz. Lehenik, transformadorearen analisisian sakontzeko transformadorearen egitura zehaztu da. Ondoren simulazioak garatzeko erabiliko den erreminta aurkeztu eta azkenik transformadorearen eredua parametrizatzeko erabiliko den metodoa eztabaidatu.

2.1.1 Transformadorea

Lehenik transformadorearen konexio mota ikertu da. 1.1 taulako konexio konfigurazioen zero-sekuentziako zirkuitua aztertuta, argi dago triangeluan konektatutako debanatu bat duten transformadoreek zirkuitua irekita dutela, eta hortaz transformadore hauek ez dute korrante homopolarrrik pasatzen utziko.

Homopolarrak bidea izateko bi konfigurazio baino ez dira posible; $YNyn$ edo $ZNyn$. Hala ere alde handia egongo da hauen artean, izan ere zigi-zaga konexioak inpedantzia txikiko bidea bihurtuko du transformadorea zero sekuentziako korranteentzat.

Beraz argi dago korrante eta tentsio homopolarrak 'hoberen' pasatzen utziko duen konfigurazioa $YNyn$ dela. Proiektuaren aplikazioagatik, ezinbestekoa da tentsio homopolarra transformadorearen alde batetik bestera igaro ahal izatea eta hortaz, **$YNyn$** konfigurazioa da kasu honetan egokiena.

Geometriari dagokionez, alternatiba ezberdinak aurkitu daitezke merkatuan. $i-DEK$ bilatzen duen aplikaziorako aukera teknikorik egokiena bost zutabeko transformadorea litzateke, honek tentsio homopolarra igarotzea ahalbidetzen baitu transformadorearen mutur batetik bestera. Hala ere, alternatiba hau beste batzuk baino garestiagoa izan daiteke.

Diruari erreparatuz, lau zutabeko transformadorea aurrekoa baino merkeagoa da, funtzio teknikoak ere ondo betetzen dituelarik. *Shell* motako transformadorea aurrekoak baino garestiagoa da, pisutxuagoa eta teknikoki erantzun berdina du, beraz mota honetako transformadorea ez dirudi alternatiba bideragarri bat.

Hiru zutabeko transformadorea transformadore mota guztien artean erabiliena eta merkeena da, baina tentsio homopolarrekin arazo larriak izan ditzake karkasaren gainberoketarik. Hala ere, transformadore honek duen abantailarik nagusia eskuragarritasuna da, izan ere horren ohikoa da, potentzia-transformadoreak egiten dituzten enpresek eskaintzen duten produktu bat izaten dela. Beste geometria batzuetako gailuak aldiz, enkargu bidez baino ez dira fabrikatzen entrega epeak luzatuz eta kostua handituz.

2.1 Taula: Transformadorearen geometria alternatibak.

Geometria	Teknikoki	Prezioa	Eskuragarritasuna
Hiru zutabe	~	★	★
Lau zutabe	✓✓✓	✓✓	✓
Bost zutabe	★	✓	✓
<i>Shell</i> motakoa	✓✓✓	~	~

Eskuragarritasun eta ohituragatik GSGIH-ak **hiru zutabeko transformadoreekin** lan egitea nahiago du eta beraz honen analisia izango da aurrera eramango dena. Gainera, hau da plataforma esperimentalean dagoen transformadorearen egitura eta beraz saiakuntza eta probak egiteko aukera bakarra hiru zutabeko transformadorea erabiltzea da. Tentsio homopolarrak jasateko egokiena ez bada ere, transformadore honekin lortu daitekeen lan-eremua zehaztuko da.

2.1.2 Simulazio-programak

Transformadoreen portaera simulatzeko programa desberdinak erabiltzen dira bibliografian eta bakoitzak baditu bere abantaila eta indarguneak. Orokorrean hauek dira arlo honetan programa informatiko erabilienak:

- **MATLAB / Simulink**

MATLAB programazio eta kalkulu plataforma bat da ingeniariaritzan oso erabilia dena; datuak aztertu, algoritmoak garatu eta modeloak sortzeko. Plataforma honen barnean dago *Simulink*, bloke eta diagrama ingurune bat, koderik programatu gabe modeloak diseinatu eta hardwarean inplementatu aurretik simulazioak egin ahal izateko.

Jakintza arlo anitzeko programa bada ere, badu sistema elektrikoak simulatzeko pakete espezializatua (*Simscape Electrical*), gailu eta konponente elektriko ezberdinen modeloak barneratzen dituen, haien artean geometria ezberdinetako transformadoreak ere.

Osagai anitzeko sistemak simulatzeko eta egoera egonkorreko analisiak egiteko programarik erabilienetakoa da, hala ere, ez dago egoera iragankorreko analisiak egiteko espezializatua eta beraz, bere liburutegian eskaintzen diren osagaiak ere, sinplegiak izan daitezke zenbait egoera simulatzeko.

- **ATP/EMTP**

Alternative Transients Program (ATP) / Electromagnetic Transients Program (EMTP), potentzia-sistema elektrikoaren egoera iragankorreko fenomeno elektromagnetiko eta elektromekanikoen analisiak egitera bideratuta dagoen simulazio programa informatiko unibertsala da. Honek, sistema elektriko konplexu eta kontrol sistemen simulazioa ahalbidetzen du.

Programak denbora errealeko analisia ahalbidetzen du, seinaleen neurketa eta sistemak pairatutako faltekin eragindako trantsitorioen analisi sakona ere bai. Emaitzak era grafikoan adierazi daitezke analisirako erreminta anitzak dituelarik, esaterako, potentzia eta energia aztertu daitezke simulazioan zeharreko edozein unetan edota seinaleen balio izendatuak kontrolatu.

Simulink bezala, ATP/EMTP-ak ere hainbat osagai elektrikoaren modelo konplexuak ditu bere liburutegian (transformadorearen modelo ezberdinak barne). Hauen abantaila, egoera trantsitorioak simulatzeko diseinatuak daudela da, eta beraz, liburutegi honetan agertzen diren transformadoreen egitura konplexuagoak dituzte.

- **COMSOL Multiphysics**

COMSOL Multiphysics elementu finituko analisia eta simulazioak egiteko diseinatuta dagoen programa da. Ingeniaritzako jakintza arlo desberdinetan lan egiteko gai bada ere, ez zaio fenomeno elektromagnetikoak aztertzeke pakete espezializatua falta.

Elementu finituetako azterketa egiteak, gainerako programak egin ezin dituzten neurketak eta grafikoak erakustea ahalbidetzen dio. Esaterako, transformadorearen nukleoan doan fluxu magnetikoa ikusi daiteke nukleoaren puntu bakoitzean, edota puntu horietako bakoitzak duen tenperatura neurtu.

Mota honetako programa bat erabiltzeak ere badu beste abantaila bat, osagai elektriko baten (transformadorea adibidez) datu geometrikoak izanda, oso eredu errealista sortu daiteke, inpedantzia eta erresistentzia elektriko baliokideak erabiltzea saihestuz.

Guzti hau kontuan hartuta, MAL-a garatzeko **MATLAB** eta **Simulink** erremintak erabiltzea erabaki da. Hala ere, hauek eskaintzen dituzten transformadore ereduak egoera desorekatuak aztertzeke desegokiak izan daitezkeenez, transformadorearen eredu propioa garatzea erabaki da.

2.1.3 Transformadorea ezaugarritzeko metodoa

- **Metodo analitikoa**

Metodo analitikoa transformadorearen egitura, hau da, geometria hartzen du oinarritzat kalkulu guztiak egiteko. Makina osatzen duten osagai ezberdinen materiala eta propietate elektromagnetikoak kontuan hartzen dira, transformadorearen eredu digitaleko osagaien parametrizazioa lortuz.

Metodo hau guztiz orokorra da eta hortaz, edozein transformadore ezaugarritzeko erabili daiteke, transformadorea fisikoki izan gabe, beti ere honen datu zehatzak eskuragarri izanda. Honekin batera, edozein tamaina edo potentziako transforma-

doreak ezaugarritzeko aplikatu daiteke kalkuluak guztiz teorikoak baitira. Kalkuluak guztiz teorikoak izateak abantailak badituen arren, desabantailak ere baditu ezin baita emaitzen kalitatea egiaztatu saiakuntzarik egin gabe.

Azkenik, metodo honek beste desabantaila nabari bat du, ezin baitira modelo digital baten beharrezkoak diren parametro guztiak analisi teoriko baten bidez lortu.

• **Metodo esperimental**

Metodo esperimental saiakuntzetan oinarritzen da transformadorearen ezaugarritzea egiteko. Makinari saiakuntza ezberdinak aplikatuta eredu sinplifikatu baten parametro ezberdinak ezaugarritzea lortu daiteke, fabrikatzaileek produktua saldu aurretik egiten duten bezala.

Metodo honek baldintza garrantzitsua du; transformadorea eskuragarri izatea eta honi saiakuntza ezberdinak egiteko aproposa den laborategi bat ere. Baldintza hau betetzeko zaila izan daiteke potentzia handiko transformadoreentzat. Saiakuntza bidezko ezaugarritzea, emaitzak egiaztatzeko metodo fidagarriena da, makinaren portaera zuzenean ikusi daitekeelako. Gainera, zenbait propietate ezaugarritzeko erabili daitekeen metodo bakarra da inpedantzia homopolarraren kasuan bezala.

Hala ere, metodo honek ere baditu zenbait desabantaila, saiakuntzetatik lortutako emaitzek errore esperimentalak baitute. Eredu digitaleko parametroek beraz, saiakuntzetan zehar egindako neurketa bakoitzaren neurketa errorea barneratuko dute.

2.2 Taula: Transformadorea ezaugarritzeko metodoen alternatibak.


Metodoa	Zehatza	Moldakorra	Egiaztapena	Eskuragarria
Analitikoa	~	★	~	★
Esperimental	★	~	★	★

Aurretik aipatutako guztia kontuan hartuta, MAL honetan transformadorea ezaugarritzeko **metodo esperimental** erabiltzea erabaki da. Plataformako transformadorea bere osotasunean eta era zehatz baten ezaugarritzeko metodorik egokiena baita.

2.2 Proposatutako irtenbidearen aukeraketa

Hiru zutabeko transformadorea GSGIH-ek proposatutako aplikaziorako aproposa dela ziurtatzeko, plataforma esperimentalean dagoen transformadorearen eredu bat garatuko da, hau *MATLAB* eta *Simulink* kalkulu eta simulazio erremintetan inplementatzeko.

Modelo digitala parametrizatzeko zenbait saiakuntza egingo zaizkio transformadoreari. Azkenik lortutako modeloa balioztatzeko, plataforma esperimentaleko transformadorea kargapean eta tentsio homopolarrarekin elikatuko da eta lortutako emaitzak modeloan egindako simulazioekin alderatuko dira.



2.1 Irudia: Proposatutako irtenbidea.


2.2.1 Transformadorearen eredu elektrikoa

Transformadoreen eredu elektrikoak zirkuitu elektrikoak dira, makinetan gertatzen diren benetako fenomeno magnetikoen portaera simulatzen dutena. Eredu hauek beraz, transformadoreen portaera aztertzeke erabili daitezke, kitzikapen eta konexio egoera zehatz batzuetan.

Potentzia-transformadoreak potentzia elektrikoa transferitzeko daude diseinatuta, hauei tentsio eta maiztasun izendatuak aplikatuta. Orokorrean transformadoreei fase bakarreko edo fase anitzeko diseinua izan dezakete, hauek izango dituzten beharrianen arabera. Ohikoena, egoera egonkorreko tentsio eta korrante orekatuak aztertzea da, kasu hauetan hiru faseetan dauden parametroak berdinak izango dira, hortaz, transformadoreen diseinu eta analisi ohikoenak ere monofasikoak dira.

2.2 irudian transformadorearen eredu monofasiko baliokidea ikusi daiteke. Bertan bi debanatu agertzen dira; primarioa eta sekundarioa, bira ratioa inplementatua duen transformazio-erlazio ideal batez isolatuta ($N_{prim} : N_{sek}$). Zirkuituak honako osagaiak ditu:

- **Harilkatuen erresistentzia (R_{prim} eta R_{sek})**, Harilkatuen kobrezko galerak ordezkatzan dituztenak.
- **Magnetizazio-erresistentzia (R_m)**, nukleoko burdinezko galerak ordezkatzan dituena.
- **Magnetizazio-induktantzia (L_m)**, Induktantzia ez lineala da, nukleoaren fluxu magnetikoa ordezkatzan duena.
- **Ihes-induktantziak (L_{prim} eta L_{sek})**, Harilek dituzten ihes fluxu magnetikoak ordezkatzan dituztenak.




2.2 Irudia: Transformadorearen eredu monofasiko sinplifikatua.

Aztergai dagoen aplikazioan aldiz, transformadoreak tentsio-desorekak jasango ditu, eta ez edonolako desorekak, linean akats monofasiko bat gertatzen denean, arazorik gabeko faseei tentsio konposatuak ezarriko zaizkie eta besteari aldiz 0 V. Hortaz, hiru faseetako parametroak ez dira berdinak izango eta transformadorearen portaera eredutzeko erabiliko den zirkuituak hiru faseak hartu beharko ditu kontuan era independentean.

Transformadorea eredutzeko transformazio duala erabiltzen duen metodoa aplikatzea erabaki da, modelo honek desorekekin lan egiteko duen gaitasuna dela eta [19]. Ondoren, transformadorearen eredua lortzeko aplikatu diren pausoak azalduko dira banan-banan.

Ereduaren garapena hiru zutabeko nukleoa duen transformadorearen topologia ezarrita hasten da. Honi harilkatuek sortutako fluxu magnetikoak adierazi behar zaizkio. Fase bakoitzean fluxu magnetiko ezberdinak agertuko dira 2.3 irudian ikus daitekeen bezala, eta fluxu guztiak batzean, bidea ixteko fluxu homopolarra ere adierazi da.




2.3 Irudia: Hiru zutabeko transformadorearen fluxu magnetikoak.

non:

- Φ_Z Nukleoaren **zutabeetan** zehar doan fluxua.
- Φ_Y Nukleoaren **uztarrietan** zehar doan fluxua.
- Φ_0 Harilkatuetatik kanpo doan fluxua (**Fluxu homopolarra**).
- Φ_1 Nukleoaren zutabe eta barneko harilkatuen arteko fluxua.
- Φ_{ihes} Barne eta kanpoko harilkatuen arteko fluxua (**Ihes-fluxua**).

Aurreko iruditik abiatuta, transformadorearen zirkuitu magnetiko baliokidea lortu daiteke (2.4 irudia), non fluxuak (Φ) dagokien erreluktantzien (\mathfrak{R}) bidez adierazi daitezkeen eta iturri elektrikoak indar magnetoeragileengatik (\mathcal{F}) ordezkatzeko diren.

Garrantzitsua da nukleoko sekzioetan (zutabe eta uztarrietan) erreluktantziak ez-linealak direla argitzea (2.4 irudian gorri), izan ere, material magnetiko saturagarriak modelizatzen dituzten erreluktantziak baitira.




2.4 Irudia: Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu magnetiko baliokidea.

Behin zirkuitu magnetikoa definituta izan, 2.3 taulan agertzen den transformazio duala aplikatu behar da zirkuitu elektriko duala lortzeko. Transformazioa egin aurretik ezinbestekoa da zirkuitu magnetikoaren nodo eta maiak markatzea.

2.3 Taula: Transformazio duala.


Zirkuitu magnetikoa	Zirkuitu elektriko baliokidea
Indar magnetoeragilea ($\mathcal{F} = N \cdot I$), [A·bira]	Tentsioa (V), [V]
Fluxua (Φ), [Wb]	Korrentea (I), [A]
Erreluktantzia (\mathcal{R}), [H^{-1}]	Induktantzia (L), [H]
Sareak	Nodoak
Nodoak	Sareak

2.5 irudian nodo eta maiak agertzen dira adierazita non, nodoak espazioko puntu bezala definitzen diren zirkuitu itxi baten barnean edo kanpoan eta maiak berriz, nodoak lotzen dituzten lerro bezala definitzen dira, zeinek zirkuituko osagaiak (erreluktantziak edo indar magnetoeragileak) zeharkatzen dituzten.



2.5 Irudia: Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu magnetiko baliokidea nodo eta maiekin.

Zirkuitu elektriko duala lortzeko 2.3 taulan aipatutako eraldaketak aplikatzen dira: Indar-magnetoeragileak, ihes-erreluktantzia linealak, sekuentzia homopolarreko bideak eta zirkuitu magnetikoko sekzioen erreluktantzia ez-lineal saturagarriak, ordezkatu egiten dira, tentsio-iturri eta inдукtancia/inpedantzia lineal eta ez-linealengatik hurrenez-hurren. Maia eta nodoak ere elkar trukutzen dira, hortaz, serie/paraleloan dauden zirkuitu magnetikoak, paralelo/seriean dauden zirkuitu dual elektrikoetan eraldatzen dira.




2.6 Irudia: Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu elektriko dual ideala.

2.5 irudiko zirkuitu magnetikoaren zirkuitu elektriko duala adierazi da 2.6 irudian, non L_Y parametroaren barne goiko eta beheko uztarrietako balioak sartu diren (transformazioa eginda paraleloan zeuden bi inдукtancia baitziren).

Ondoren eredu idealari portaera erreala emateko, transformadore idealak gehitu zaizkio zirkuituari, primarioaren eta sekundarioaren arteko isolamendu elektriko-magnetikoa bermatu eta bira erlazioa ezartzeko. Honetaz gain, harilkatuen galera errealak kontuan hartzeko erresistentzia elektrikoak ezarri dira primario eta sekundarioan (R_{prim} eta R_{sek}).


Harilkatuetan egin den bezala, nukleo magnetikoan eta baita bide homopolarrean egongo diren bero-galerak zenbatezteko, R_Z , R_Y eta R_0 gehitu dira hurrenez-hurren, osagai bakoitzaren inductantziarekin paraleloan. Adieraztekoa da 2.7 irudian agertzen den zirkuitua, edozein konexio konfiguraziorako (izar, triangelu edota zigi-zaga) dela baliagarria.



2.7 Irudia: Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu elektriko duala.

Azken eredu lortzeko harilkatuen konexioa eta ordu indizeak hartu behar dira kontuan eta baita harilkatuen eta karkasaren arteko efektu kapazitiboak ere.

Efektu kapazitiboek dagokienez, harilkatu-lurra alde batetik, eta primario eta sekundarioen arteko kapazitantziak bestetik hartu dira kontuan. Faseen arteko kapazitatea arbuigarria da gainerakoekin konparatuta, gainera entseguen bidez lortu ezin diren balioak dira. Era berean, seriezko kapazitantziaren (fase eta neutroaren artekoa) balioa lortzea ezinezkoa denez, efektu hau ere sinplifikatu egin da. Gainera, homopolarraren adarrean bi inpedantzia berdin geratu direnez seriean, hauek inpedantzia bakar baten bateratu dira (R_0 eta L_0).




2.8 Irudia: Hiru zutabeko transformadorearen zirkuitu elektriko dual osoa.

2.8 irudian $C_{harilkatuak/2}$ parametroa behin baino ez dagoen arren, primario eta sekundario guztien arteko kapazitantziak daude eremuan, baina irudiaren argitasunagatik ez dira denak adierazi.

2.8 irudian ageri den zirkuitua YNyn0 konfiguraziodun transformadore bati dagokio, zeinetan bi harilkatuak izarrean konektatuta dauden neutroa eskuragarri dutelarik. Transformadorearen eredu elektriko osoa 2.8 irudian agertzen dena bada ere, MAL honen garapenerako sinplifikazio batzuk egingo dira:

- **Zutabe eta barneko harilkatuaren arteko ihes fluxua** (2.8 irudiko L_1 osagaia) mespretxatu egingo da. Fluxu magnetiko hau oso txikia da zutabeko fluxuarekin konparatuta [20]. Zutabearen materiala ferromagnetikoa da eta airea berriz paramagnetikoa, gainera, zutabe eta harilaren arteko distantzia minimoa da, honek L_1 oso txikia izatea eragiten du L_Z -rekin alderatuta.
- Transformadoreak izango dituen **efektu kapazitibo guztiak** mespretxatu dira. Efectu hauek oso garrantzitsuak dira transformadorea maiztasun izendatua ez den beste maiztasun batzuekin elikatzen denean, edota sistemak jasan dezakeen transitorietan zehar [21]. Aztergai dagoen egoeran maiztasuna beti izango da izendatua eta hortaz, efektu kapazitiboen eragina minimoa izango dela onartu daiteke.

Sinplifikazioak eginda 2.9 irudian adierazita dagoen transformadorearen eredu definitiboa lortu da.




2.9 Irudia: MAL-ean erabiliko den transformadorearen zirkuitu elektriko baliokidea.

2.2.2 Induktantzia ez-linealak modelizatzeko azpisistema

Induktantzia ez-linealen eredua lortzeko modelo propio simple bat garatu da, *Simulink*-ek eskaintzen duen blokeek dituzten arazoak ekidinez, izan ere, programaren liburutegian dagoen induktantzia ez linealaren modeloak fluxu magnetikoa eta korrontea ditu sarre-rako datu, eta saiakuntzetatik lortutakoa berriz tentsio korronte kurba da.

Azpisistema honen helburua osagaiak ikusten duen tentsioaren araberako inpedantzia zehatz bat ezartzean datza. Horretarako 2.10 irudian azaltzen den topologia erabili da:



2.10 Irudia: Induktantzia ez linealaren azpisistema.

Azpisistemak honako osagai hauek ditu:

1. Tentsio-neurgailua

Honen bidez, azpisistemak ikusten duen tentsioa neurtzen da (induktantzia aldakorak ikusiko lukeena).

2. Tentsio eta korrontea erlazionatzen dituen V-I kurba

Bloke honetan, osagaiaren tentsio eta korrontearen arteko erlazioa (inpedantzia) inplementatzen da, induktantziaren saturazio-karakteristika modelatuz.

3. Seinale atzerapena

Ondoren korrontearen seinalea 5ms atzeratzen da korrontea tentsioarekiko 90° defasatuz. Pauso hau ezinbestekoa da induktantzia ezaugarritzeko, bloke hau jarri ezean bloke osoa erresistentzia aldakor baten portaera izango lukeelako.

4. Kontrolatutako korronte-iturria

Azkenik tentsioaren araberako korronte bat injektatzen da, inpedantziaren aldaketa simulatzen duena.

2.2.3 Transformadorea parametrizatzeko saiakuntzak: Oinarri teorikoak

2.8 irudian agertzen diren parametro guzti horien balioak lortzea nahikoa konplexua izan daiteke. Atal honetan, saiakuntzen bidezko parametrizazio osoa egiteko bide bat deskribatzen da.

Balio batzuk saiakuntza tradizioaletatik lortu daitezke, harilkatuen erresistentziak eta ihes-induktantziak adibidez, beste batzuk lortzeko aldiz, saiakuntza berriagoak behar dira. 2.4 taulan parametro bakoitza lortzeko behar den saiakuntza adierazi da.

2.4 Taula: Transformadorearen inpedantzia baliokideak lortzeko saiakuntzak

Parametroa	Saiakuntza
$R_{prim} + R_{sek}$ L_{ihes}	Zirkuitulaburreko saiakuntzak
$R_0 + L_0$	Zero-sekuentziako saiakuntza
$R_Z + L_Z$ $R_Y + L_Y$	Hutseko saiakuntzak
C_{PG}, C_{SG} eta C_{PS}	Kapazitantzia multitesta


Ondoren, saiakuntza bakoitza era sakon baten deskribatu da:

Zirkuitulaburreko saiakuntzak

Saiakuntzekin hasteko, lehenik eta behin, fase bakoitzeko zirkuitulaburreko saiakuntzak gauzatu eta aztertu behar dira. Neurketa hauen bidez transformadorearen fase bakoitzeko harilkatuen erresistentziak (R_{prim} eta R_{sek}) eta ihes-induktantzia (L_{ihes}) lortu daitezke, test hauek independenteak baitira beraien artean.

Fase bakoitzeko zirkuitulaburreko saiakuntza oso saiakuntza tradizionala da, non fase bakoitzarekin banan-banan lan eginda. Saiakuntza gauzatzeko, harilkatu bat (primarioa edo sekundarioa) elikatu behar da, eta elikatu ez dena zirkuitulaburtu.

Garrantzitsua da gogoratzea, zirkuitu laburreko saiakuntzetan oso tentsio txikiekin elikatu behar direla harilkatuak (tentsio izendatuaren %5-a inguru), korrante izendatua lan egitea baita helburua.



2.11 Irudia: A faseko zirkuitulaburreko saiakuntzaren diagrama.

2.11 irudian, saiakuntza egiteko egin beharreko montaketaren eskema ageri da, zeinetan voltmetro eta anperimetro bana behar diren. Horretaz gain, korronteak izango duen bide nagusia ere markatu da, bide homopolarraren korrontea nulua izango dela suposatuz.

Behin saiakuntza bukatuta, fase bakoitzeko (R_{prim} , R_{sek} eta L_2) lortu daitezke hurrengo ekuazioak aplikatuz:

$$Z_{zl} = \frac{V_{voltmetro}}{I_{anperimetro}} \quad (2.1)$$

$$R_{zl} = Real(Z_{zl} - R_{kableak}) \quad (2.2)$$

$$X_{zl} = Imag(Z_{zl}) \quad (2.3)$$

$$R_{prim}^* = R_{sek}^* = \frac{R_{zl}}{2} \quad (2.4)$$

$$L_2 = \frac{X_{zl}}{2 \cdot \pi \cdot f} \quad (2.5)$$


* Primario eta sekundarioko harilkatuetako erresistentzia berdina izango dela suposatuta.

Zero-sekuentziako saiakuntza

Saiakuntza honen bidez transformadorearen zero-sekuentziako inpedantzia (inpedantzia homopolarra) (R_0 eta L_0) lortu daiteke.

Saiakuntza egiteko transformadorea tentsio homopolarrekin elikatu behar da, egoera hau hiru faseak tentsio-iturri berdinarekin elikatuz lortu daiteke 2.12 irudian azaltzen den bezala. Elikatzen ez den aldea aldiz, zirkuitu irekian mantendu behar da.

Aurreko saiakuntzan bezala, honetan ere voltmetro eta anperimetro bana behar izango dira. Kasu honetan ere korrontearen bide nagusia markatu da 2.12 irudian, inpedantzia homopolar txikieneko bidea, bide homopolarra izango dela aintzat hartuta.



2.12 Irudia: Zero-sekuentziako saiakuntzaren diagrama.

Institute of Electrical and Electronics Engineers (IEEE)-ren potentzia-transformadore sikuen normari erreparaturaz [22], izar-izar konexiodun transformadoreetan zero-sekuentziako saiakuntza gauzatzeko aplikatutako tentsioak ezin du faseko tentsio izendatuaren %30-a gainditu, era berean, ezin izango da fase bakoitzeko korronte

izendatua gainditu. Honen bidez tankearen gehiegizko beroketa saihestu egiten da, saiakuntzaren segurtasuna bermatuz.

Asociación Española de Certificación y Normalización (Aenor)-en potentzia-transformadoreen normak [23] aldiz, faseko-neutroko tentsio izendatua ez gainditzera baino ez du behartzen. Hala ere, neutroko korronea eta saiakuntzaren iraupena mugatu behar direla adierazten du, transformadorearen parte metalikoen gainberoketa saihestuz, baina inolako argibide zehatzik gabe.

Saiakuntzako neurketak erabiliz eta hurrengo ekuazioak aplikatuz, (R_0 eta L_0) lortu daitezke:

$$V_0 = 3 \cdot V_{voltmetro} - \frac{I_{anperimetro}}{3} \cdot (R_{prim_A} + R_{prim_B} + R_{prim_C} + 3 \cdot R_{kablea}) \quad (2.6)$$

$$Z_h = 3 \cdot \frac{V_0}{I_{anperimetro}} \quad (2.7)$$

$$R_h = Real(Z_h) \quad (2.8)$$

$$R_h = Imag(Z_h) \quad (2.9)$$

$$Y_h = \frac{1}{R_h + X_h \cdot j} \quad (2.10)$$

$$R_0 = Real\left(\frac{1}{Z_h}\right) \quad (2.11)$$


$$X_0 = Imag\left(\frac{1}{Z_h}\right) \quad (2.12)$$

$$L_0 = \frac{X_0}{2 \cdot \pi \cdot f} \quad (2.13)$$

Hutseko saiakuntzak

Ondoren, transformadorearen zutabe eta uztarrietako inpedantzien balioak lortzeko (Z_Z eta Z_Y) hutseko saiakuntza desberdinak gauzatu behar dira. Gainera, inpedantzia hauek ez-linealak direnez, konfigurazio bakoitzeko neurketa ezberdinak egin beharko dira, induktantzien saturazio kurba lortuz.

Hutseko saiakuntza tradizionalarekin alderatuta zenbait aldaketa dakar test mota honen. Transformadorearen alde bat (sekundarioa adibidez) hutsean mantendu behar da, primarioan aldiz, fase bakoitzari konexio ezberdin bat egin behar zaio, 2.13 eta 2.14 irudietan ikus daitekeen bezala. Bi kasuetan elikatutako fasea A da, lehenengo kasuan, B fasea zirkuitu irekian mantentzen da, bertan voltmetro bat konektatuz eta C fasea zirkuitulaburtu egiten da, bertan anperimetro bat konektatuz.



2.13 Irudia: Zutabeeko inpedantzia lortzeko saiakuntza.

Konfigurazio honi eske, zutabeetako inpedantziaren balioa lortu daiteke; izan ere, voltmetroa zutabeeko inpedantzian jauzitako tentsioa neurtzen ari da (L_2 -n jauzten den tentsio txikiarekin batera), anperimetroak inpedantzia horretatik igarotako korrontea neurtzen duen bitartean.

$$V_{jauzkera} = (X_{ihes_B} \cdot j) \cdot I_{zutabe} \quad (2.14)$$

$$V_{zutabe} = V_{osoa} - V_{jauzkera} \quad (2.15)$$

Konfigurazio honetan sakonduz, 2.15 irudiko zirkuitu sinplifikatua lortu daiteke. Anperimetro eta voltmetroetako neurriak erabilia, eta kontuan hartuta aurreko konfiguraziotik (2.13 irudia) Z_{zutabe} ezaguna dela, $Z_{uztarri}$ hurrengo ekuazioen bidez kalkulatu daiteke:

$$I_{zutabe} = \frac{V_{voltmetro}}{(X_{ihesc} \cdot j) + Z_{zutabe}} \quad (2.20)$$


$$I_{uztarri} = I_{anperimetro} - I_{zutabe} \quad (2.21)$$

$$Z_{uztarri} = \frac{V_{voltmetro}}{I_{uztarri}} \quad (2.22)$$

$$R_{uztarri} = \text{Real}(Z_{uztarri}) \quad (2.23)$$


$$X_{uztarri} = \text{Imag}(Z_{uztarri}) \quad (2.24)$$

$$L_{uztarri} = \frac{X_{uztarri}}{2 \cdot \pi \cdot f} \quad (2.25)$$



2.15 Irudia: Hutseko saiakuntzako zirkuitu sinplifikatua.

Aurreko bietaz gain, badago A fasea elikatuta muntatu daitekeen beste konfigurazio bat; gainerako faseak zirkuitu irekian mantenduta 2.16 irudian bezala. Saiakuntza hau, aurreko bietan lortutako emaitzak konprobatzeko erabili daiteke, edota aurreko bietako bat ordezkatzeko ere.



2.16 Irudia: Hutseko saiakuntzaren diagrama.

Kontuan hartuta, B eta C faseak ere elikatu daitezkeela, guztira 9 konfigurazio ezberdin lortu daitezke. Hala ere, A fasea elikatuta gertatzen zen bezala, gainerakoetan ere posible diren 3 saiakuntzetatik 2 egitea nahikoa litzateke parametro guztiak ezaugarritzeko. Ez hori bakarrik, elementu bakoitza ezaugarritzeko saiakuntza bat egitea (3 zutabeentzat eta 2 uztarrientzat) baino ez da beharrezkoa. Bost saiakuntzak eginda beraz, zutabe eta uztarri bakoitzaren kurba karakteristikoa lortu daiteke era independentean.

Saiakuntzetan zehar neurketetan sartutako erroreak ekiditeko, eta emaitzen zehaztasuna handitzeko [24]-k konfigurazio guztietako neurriak erabiltzea gomendatzen du, konfigurazioa hauetako bakoitzarekin, inpedantzia baliokide ezberdin bat ikusiko baitu elikadurak.

Kapazitantzia multitesta

Transformadoreak izango dituen efektu kapazitiboak aztertu eta kuantifikatzea ($C_{prim.g/2}$, $C_{harilkatuak/2}$ eta $C_{sek.g/2}$) 2.7 irudian, (laburtzearren C_{PG} , C_{PS} eta C_{SG} hurrenez hurren) du helburu azkeneko multitest honek.

Saiakuntza hauetan, kapazitantzien balioak lortzeko, ez da nahikoa anperimetro, voltmetro eta wattmetroekin, sare aztertzaileak behar dira, edo antzeko funtzioak dituzten gailuak. Teknologia hau ez dago eskuragarri laborategian eta hortaz, MAL honetan ezin izango dira kapazitantzia multitestak gauzatu.

Aipatzekoa da gainera, efektu kapazitiboen eragina maiztasunen eremuan duela garrantzia gehien bat [21], eta aztergai dagoen aplikazioan maiztasun industrialean egingo da lan une oro. Honengatik eta saiakuntzak egiteko zailtasunak ikusita, efektu kapazitiboen eragina ez da kontuan hartuko transformadorearen modeloa egiteko orduan.

Hala ere, saiakuntzen nondik norakoak azalduko dira jarraian. Kapazitantzia mota ezberdin 2 neurtu behar dira (fase-lurra artekoak eta primario-sekundario artekoak), horretarako, konfigurazio ezberdinekin saiatu behar da transformadorea. Efektu kapazitiboen eragina neurtzeko 2 metodo desberdin topatu dira bibliografian:

1. Grounded Specimen Test with guard (GSTg), Grounded Specimen Test (GST) eta Ungrounded Specimen Test (UST) metodoak aplikatzen dituzten saiakuntzen bidezkoa:
 - **GSTg.** Lurra eta lurrera konektatuta ez dagoen terminalen arteko kapazitantzia neurtzeko erabiltzen da test mota hau. Terminal bat lurrera konektatzen da eta bestea primario edo sekundarioko debanatueta. Honela fase-lur arteko kapazitantzia lortu daiteke.
 - **GST.** Lurrera konektatuta ez dauden terminalen lurrarekiko kapazitantzia neurtzeko erabiltzen da test hau. Kasu honetan primario edo sekundarioa lurrera konektatzen da Neurketarako terminal bat lurrean jartzen da eta beste berriz, inora konektatuta ez dagoen debanatura. Saiakuntza honekin primario eta sekundarioko fase-lur kapazitantzien batura neurtuko da.

- **UST.** Lurrera konektatuta ez dauden bi terminalen arteko kapazitantzia neurtzeko balio du test honek. Terminal bakoitza debanatu bakoitzean jartzen da neurketa hau egiteko.

Guztira 5 konfigurazio ezberdin muntatu daitezke metodo hau aplikatuta (2.5 taula).

2.5 Taula: Transformadorearen kapazitantzia baliokideak lortzeko multi-testa

Znbk.	Test mota	Elikatu	Guard	UST	Lurrera	Neurtutakoa
1	GSTg	Primarioa	Sek.			C_{PG}
2	GSTg	Sekundarioa	Prim.			C_{SG}
3	UST	Primarioa		Sek.		C_{PS}
4	UST	Sekundarioa		Prim.		C_{PS} (i)
5	GST	Primarioa			Sek.	$C_{PG} + C_{PS}$ (ii)

i. laugarren test-a hirugarrenaren alternatiba bat da C_{PS} neurtzeko.

ii. Bostgarren testa lehenengoaren eta hirugarrenaren konprobaketa egiteko balio du.

2. Lurreko konexio eta elikatutako aldearen arabera, lau konfigurazio ezberdin muntatu daitezke transformadorean eta guzti horietatik 4 kapazitantzia balio lortu daitezke (2.6 taula) [24].

2.6 Taula: Transformadorearen kapazitantzia baliokideak lortzeko saiakuntzak

Konfigurazioa			Kapazitantzia baliokidea
Elikatu	Zirkuitulaburtu	Lurrera	
Prim.	Sek.		$C_1 = C_{PG} // (C_{PS} + C_{SG})$
Prim.	Sek.	Sek.	$C_2 = C_{PG} // C_{PS}$
Sek.	Prim.		$C_3 = C_{SG} // (C_{PS} + C_{PG})$
Sek.	Prim.	Prim.	$C_4 = C_{SG} // C_{PS}$

Aurreko neurketatik transformadorearen kapazitantzia baliokideak kalkulatu daitezke hurrengo ekuazioak aplikatuz:

$$C_{PS} = \frac{C_{PS_1} + C_{PS_2}}{2} \equiv \frac{\sqrt{C_2 \cdot (C_4 - C_3)} + \sqrt{C_4 \cdot (C_2 - C_1)}}{2} \quad (2.26)$$

$$C_{PG} = C_2 - C_{PS} \quad (2.27)$$

$$C_{SG} = C_4 - C_{PS} \quad (2.28)$$

C_{PS} lortzeko, C_{PS_1} eta C_{PS_2} -ren arteko bataz bestekoa kalkulatu da. Izan ere, 2.6 taulan 4 ekuazio daude baina 3 parametro baino ez. Kalkulatutako balioa beraz, egokia izango da C_{PS_1} eta C_{PS_2} -ren arteko aldea txikia denean.

2.2.4 Transformadorea parametrizatzeko saiakuntzak: Hardwarea

Saiakuntzak egin ahal izateko CINERGIA GE & EL+15 vAC/DC tentsio-iturri programagarria erabili da (2.17 irudia), hau transformadorera konektatu da zuzenean (2.18 irudia). Neurketak egiteko YOKOGAWA DL850EV osziloskopioa (2.19 irudia) erabili da uhinen forma guztia eskuratuz.


Erabilitako kableen erresistibitatea neurtzeko eta transformadorearen elikatutako tentsioa ikuskatzeko multmetro bat erabili da. Azkenik une oro saiakuntzetan zehar transformadoreak xurgatutako korrontea izendatuaren azpitik dagoela konprobatzeko pintza anperimetriko bat erabili da.

Tentsio-iturria

Transformadoreari saiakuntza guztiak egiteko **CINERGIA GE & EL+15 vAC/DC** tentsio-iturri programagarria erabili da (2.17 irudia). Operazio modu ezberdinetan lan egin dezake (Tentsio-iturri programagarria, GE Grid Emulator moduan, edo karga, El Electronic Load moduan). Tentsio-iturri honek *back to back* motako topologia du, AC eta DC tentsioak sortzea ahalbidetzen diona. Honetaz gain harmoniko ezberdinen anplitudearen kontrola ere eskaintzen du, gailuaren irteerako tentsio uhinaren forma aldatuz.

Plataformako modeloak 15 kVA-ko potentzia izendatua du eta tentsio mailak ($750 V_{DC}$ eta $277 V_{RMS}$ F-N, $10 \text{ Hz} \leq f \leq 100 \text{ Hz}$ -eko maiztasun tartean). Korrontearen aldetik, 60 A elikatu ditzake DC moduan eta fase bakoitzeko 22 A AC moduan lanean (Informazio gehiago I. Eranskinean).

Ezaugarri hauekin guztiekin, CINERGIA GE & EL+15 vAC/DC tentsio-iturria plataforma esperimentalak izan ditzakeen beharrianak gainditzen ditu, saiakuntza egiteko edota beste proiektu batzuetan baliagarria izan daitekeen marjina bat utziz.




2.17 Irudia: CINERGIA GE & EL+15 vAC/DC.

Transformadorea

Plataformako transformadorea **Tecnotraforen TT 10 KVA TRAF0 III IP-23** transformadorea da (2.18 irudia). Gailuak 10 KVA-ko potentzia izendatua du eta 400 V/400 \pm 5% V-eko tentsio izendatua, eta beraz tentsioan aldaketarik eman gabe isolamendu elektrikoa eskaintzen du primario eta sekundario artean.


Transformadorearen konexio mota YNyn0 da korrante eta tentsio homopolarrei bidea ahalbidetuz. Geometrikoki 70x70 mm^2 -ko 3 zutabe ditu eta karkasaren materiala ferromagnetikoa izanda (M330-50A), fluxu magnetiko homopolarri nolabaiteko itzulera bidea eskaintzen dio (Informazio gehiago II. Eranskinean).



2.18 Irudia: Tecnotraforen TT 10 KVA TRAF0 III IP-23.

Osziloskopioa

Saiakuntza guztietako neurketak egiteko YOKOGAWA DL850EV osziloskopioak (2.19 irudia) dakartzan tentsio neurgailu eta pintza anperimetrikoak erabili dira. Hauek oszilopiora konektatu dira zuzenean neurtutako seinaleak bistaratzuz. Saiakuntza bakoitzean 0,1 segunduko seinaleak gorde dira $5 \cdot 10^5$ -eko laginketa maiztasunarekin. Informazio guzti hau, USB bat erabilita ordenagailura bidali da zeinetan *MATLAB* bidez, saiakuntzetako datu guztiak landu eta kalkuluak egiteko erabili diren (Informazio gehiago III. Eranskinean).




2.19 Irudia: YOKOGAWA DL850EV Osziloskopioa.

2.2.5 Transformadorea parametrizatzeko saiakuntzak: Emaita esperimentalak

Zirkuitulaburreko saiakuntza


Zirkuitulaburreko saiakuntzak gauzatu ostean (2.20 irudia) transformadorearen harilkatuetako erresistentzia eta ihes inductantzien balioak lortu dira 2.1-2.5 ekuazioak aplikatuta. Parametro bakoitza ondo ezaugarritzeko saiakuntza fase bakoitzean egin da, bakoitzean tentsio ezberdinak aplikatuta. 2.1 eta 2.2 grafikoetan lortutako emaitza esperimentalak ikus daitezke tentsio -korrante grafiko baten irudikatuta.




2.20 Irudia: Zirkuitulaburreko saiakuntza egiteko montaketa.

Parametro hauen balio definitiboa lortzeko tentsio maila ezberdinetan egindako sai-kuntzen arteko datuen doiketa lineal bat egin da MATLAB-ek duen *lsqcurvefit* funtzioa erabilita (2.1 eta 2.2 grafikoak). Doiketa lineala izatea erabaki da, bai erresistentzia zein induktantzien kasuan. Erresistentziek harilkatuaren erresistentzia elektrikoa eredutzen dute eta beraz, hauen balioa konstantea izan behar baita. Induktantzien kasuan, hauek, ihes fluxu magnetikoak eredutzen dituzte transformadorearen barnean eta fluxu hauek airetik itxiko direnez, induktantzia honen balioa ere konstantea izan behar du.

Azkenik, erresistentziekin egindako doiketak, transformadorearen datasheet-eko datuekin konparatu dira, hauen arteko aldea ikusteko (2.1 grafikoa).



2.1 Grafikoa: Harilkatuetak erresistentziak (R_{prim} eta R_{sek}).



2.2 Grafikoa: Ihes induktantziak (L_{ihes}).


Aurreko grafikoetako doiketen emaitzak laburbildu dira jarraian (2.7 taula).

2.7 Taula: Zirkuitulaburreko saiakuntzetatik lortutako parametroen balioak.

Fasea	$R_{prim}(\Omega)$	$R_{sek}(\Omega)$	$L_{ihes}(H)$
A	0.326	0.195	$2.268 \cdot 10^{-3}$
B	0.335	0.200	$2.222 \cdot 10^{-3}$
C	0.319	0.190	$2.177 \cdot 10^{-3}$

Zero-sekuentziako saiakuntza

Behin zero-sekuentziako saiakuntza gauzatu (2.21 irudia), 2.6-2.13 ekuazioak aplikatu dira transformadorearen erresistentzia eta inдукtancia homopolarren baliokideak lortzeko. Kasu honetan ere, saiakuntza tentsio ezberdinekin egin da (korrante izendatutik oso gertu geratu arte), inpedantzia homopolarren portaera transformadorearen funtzionamendu gunean ondo ezaugarritzeko.




2.21 Irudia: Zero-sekuentziako saiakuntza egiteko montaketa.

Zirkuitulaburreko saiakuntzaren kasuan bezala, honetan ere emaitza esperimentalak tentsio - korrante grafiko baten irudikatu dira. Puntu esperimentalak *lsqcurvefit* funtzioaren bidez doitu dira.

Erresistentzia homopolar baliokideak joera lineala du, hala ere, saiakuntzak egin diren tentsioetan erresistentziaren balioa 4. mailako polinomio batera hurbiltzea egokiagoa da. Kurba 4. mailako polinomio batera doitzeak desabantaila argia du, izan ere, datu esperimentaletatik gertu dauden tentsio eta korrante balioentzat hurbilketa oso ona den arren, datu hauetatik urrun dauden guneetan (tentsio homopolar altuekin) polinomioaren formak joera lineala galtzen du eta beraz, hurbilketa oso txarra da gune horietan.

Arazo hau ekiditeko erresistentzia doitzeko bi funtzio erabili dira (2.3 grafikoa), saiakuntzak egin diren gunean 4. mailako polinomioaren doiketa erabili da (benetan transformadorea erabiliko den eremua baita) eta saiakuntzarik egin izan ez den guneentzat 1. mailako polinomio batera doitu da kurba (simulazioak egin ahal izateko).


$$V_{homopolarra} = \begin{cases} A \cdot I_{homop.} + B \cdot I_{homop.}^2 + C \cdot I_{homop.}^3 + D \cdot I_{homop.}^4, & , I_{homop.} < I_{krit.} \\ E + F \cdot I_{homop.} & , I_{homop.} \geq I_{krit.} \end{cases}$$



2.3 Grafikoa: Erresistentzia homopolarra (R_0).

Induktantziak ere, nahiko joera lineala du, izan ere, induktantzia honek airetik eta transformadorearen karkasatik dabilen fluxu magnetikoa eredutzen ditu. Karkasaren materiala ferromagnetikoa bada ere, airea berriz paramagnetikoa eta beraz, aireak markatuko du induktantziaren joera nagusia.

Hala ere, karkasa ferromagnetikoa izanda, hau saturatu egin daiteke eta hortaz tenstio homopolarrak gora egiten duenean induktantzia homopolarraren balioa ere aldatuz joango da. Honengatik guztiatik, erresistentziaren kasuan bezala, induktantzia homopolarra 4. mailako polinomio batera doitu da saiakuntzen eremuaren inguruan eta 1. mailako polinomio batera gune honetatik kanpo(2.4 grafikoa),(2.29 ekuazioa).



2.4 Grafikoa: Induktantzia homopolarra (L_0).


Kurba hauen alde negatiboa ezaugarritzeko, alde positiboaren simetriko negatiboa sortu da. Inpedantzia homopolarra beraz, erresistentzia eta induktantzia funtzioak izango dira (2.8 taula).

2.8 Taula: Osagai homopolarren doitutako parametroak.


Parametroa	A	B	C	D	E	F
R_0	18,084	17,924	-5,214	0,436	23,538	27,534
X_0	22,683	-1,620	0,119	-0,003	17,152	13,313

Hutseko saiakuntzak

Hutseko saiakuntzetako (2.22 irudia) datuak aztertuta, argi dago seinaleen harmonikoen maila oso altua dela, osziloskopioan neurtutako korrante eta tentsioak transformadorearen fluxu magnetikoen proportzionalak baitira (2.23 irudia).




2.22 Irudia: Hutseko saiakuntzak egiteko montaketak.



2.23 Irudia: Hutseko saiakuntzetan osziloskopioak neurtutako uhinak.

Egoera ikusita ezinbestekoa da seinaleei Fourierren transformatua aplikatzea, transformatu honi esker seinaleak dituen harmoniko bakoitzaren anplitude eta fasea deskonposa daiteke (2.24 irudia).



2.24 Irudia: Hutseko saiakuntzeetako uhinen Fourier transformatua.

Seinaleen deskonposaketa ezinbestekoa da emaitzen zehaztasuna bermatzeko, izan ere, zutabe eta uztarrietako inpedantzia baliokideen balioak, erreaktantziak hain zuzen ere, maiztasunaren menpekoak baitira:

$$X = 2 \cdot \pi \cdot f \tag{2.29}$$

Kalkuluak egiterako orduan beraz, zenbait aldaketa egin dira, rms balioak ez baitira horren zehatzak izango inpedantziak kalkulatzeko orduan.

Zutabeko inpedantziaren balioa lortzeko (lehen saiakuntza), honako prozedura jarraitu da:

1. Ihes induktantzian jausitako tentsioa kalkulatzeko, Fourierren transformatua aplikatu zaio korronte seinleari MATLAB-en *fft* funtzioaren bidez eta ondoren induktantzien definizioa aplikatuta, tentsioaren jauskera lortu da, eta honekin beraz, zutabearen aplikatuta dagoen tentsioa.

$$v_{jauskera}(t) = L_{ihes} \cdot \frac{di_{osoa}}{dt} \tag{2.30}$$

$$v_{zutabe}(t) = v_{osoa}(t) - v_{jauskera}(t) \tag{2.31}$$

2. Behin zutabeko adarrean korrante eta tentsioak ezagututa, potentzia aktiboaren kalkulua erabili da erresistentziaren balioa lortzeko, eta ostean korrante erresistibo eta erreaktiboak banatzeko:


$$p(t) = V_{zutabe}(t) \cdot i_{zutabe}(t) \quad (2.32)$$

$$R_{zutabe} = \frac{rms(v_{zutabe})^2}{mean(p_t)} \quad (2.33)$$

$$i_R(t) = \frac{v_{zutabe}(t)}{R_{zutabe}} \quad (2.34)$$

$$i_L(t) = i_{zutabe}(t) - i_R(t) \quad (2.35)$$

Erresistentziaren balioa lortzeko, aurreko kasuetan bezala, 4. mailako polinomio batera doitu da saiakuntza datuak dauden gunean eta doiketa lineala egin da datuak ez dauden guneean, emaitza esperimentalen joera hori baita (2.5 grafikoa).




2.5 Grafikoa: Zutabeko erresistentzia (R_z).

Induktantziaren korrante eta tentsio datuak izanda, hauen arteko grafikoa eskuratu da (2.6 grafikoa), zutabeko erreaktantzia ereduaren duena. Tentsio maila ezberdinetan lortutako datuetaz baliatuta, kurbaren parametro ezberdinak doitu dira berriz ere MATLABeko *lsqcurvefit* funtzioa aplikatuta. Kasu honetan datu esperimentalen joera ikusita, kurba esponentzial batera doitzea erabaki da, 2.36 ekuazioko forma duena:

$$V_{zutabe} = \frac{A}{1 + e^{-B \cdot (I_{zutabe} - C)}} + 100 \cdot I_{zutabe} - \frac{A}{2} \quad (2.36)$$

Kasu honetan saiakuntza bakoitzeko ziklo oso bat irudikatu da V-I grafikan, tentsio maila bakoitzean zutabeak egiten duen zikloa bistaratzuz. Horien guztien gainetik egindako hurbilpena grafikatu da.



2.6 Grafikoa: Zutabeko inдукtancia (L_z).


Lortutako kurbak, saturagarria den inдукtancia baten ohiko forma du, zeinen histeresi zikloaren zabalera oso estua den. Aipatzekoa da kurba ez dagoela (0,0) jatorri puntuan zentratuta eta beraz aurretiazko imantazio-hondar bat dagoela onartu daiteke.

Bestetik, teorikoki kurba guztiak histeresi-zikloaren barnean egotea espero zen, baina aipatutako kurbaren desplazamenduak kurba esperimental batzuk (saturatu gabe daudenak) besteetatik aldentuta geratzea eragin du.

Horretaz gain azpimarratzekoa da egindako doiketan ez dela histeresi-zikloaren hurbilketa bat lortzen saiatu, kurba simple bat baizik (2.6 grafikoko hurbilketa esponentziala), eta beraz, honek errore bat gehituko dio errore esperimentalari.


Uztarriko inpedantzia baliokidea lortzeko (bigarren saiakuntzen datuetatik), aurreko kasuko antzeko garapena egin da:

1. Zutabeko adarreko inpedantzia osoa ezagututa, eta honek jasango duen tentsioa ere jakinda, adar honetatik joango den korrontea kalkulatu daiteke, eta hortaz uztarriko adarretik joango den korrontea ere (2.15 irudian ikusi daiteke).
2. Uztarriko korronte eta tentsioak ezagututa, aurreko kasuan bezala, uztarriko erresistentzia eta erreaktantzien kurba karakteristikoak lortu daitezke (2.7 eta 2.8 grafikoak). Zutabeko kurben forma berdinak izango dituzte hauek; 4. eta 1. mailako polinomioa erresistentziaren kasuan eta esponentziala induktantziarenean.



2.7 Grafikoa: Uztarriko erresistentzia (R_y).

Grafikoa aztertuta, argi dago kasu honetan egindako hurbilpenak errore nabaria izango duela, erresistentzia honen kalkulurako aurretik kalkulaturako parametro guztiak erabili baitira. Garrantzitsua da aipatzea kasu honetan datu esperimentaletako kurbak lortzeko seinaleen arteko eragiketa batzuk egin behar izan direla, datuen zehaztasuna murriztuz.



2.8 Grafikoa: Uztarriko induktantzia (L_y).

Uztarriko induktantziaren ezaugarri kurbaren kasuan, zutabearen kurban baino ageriagoa da honen histeresi zikloa eta jatorriko puntuarekiko desplazamendua askoz txikiagoa da. Kasu honetan kurba guztiak daude histeresi zikloaren barnean teorikoki espero den bezala. Hala ere aurrekoan bezala, ez da ziklo osoaren hurbilketa egin eta beraz histeresiaren fenomenoak alde batera utzi da.

Erresistentzien kasuan, kurbaren alde negatiboa lortzeko alde positiboaren simetrikoa kalkulatu da. Induktantzien kurbak berriz tarte positibo zein negatiboa adierazten dute. Jarraian kurba hauen doiketa parametroak adierazi dira (2.9 eta 2.10 tauletan).

2.9 Taula: Nukleoko erresistentzien doitutako parametroak.

Param.	A	B	C	D	E	F
R_z	$1,156 \cdot 10^3$	$10,938 \cdot 10^3$	$844,956 \cdot 10^3$	$-9,257 \cdot 10^6$	76,688	$1,803 \cdot 10^3$
R_y	$4,718 \cdot 10^3$	$-165,487 \cdot 10^3$	$2,342 \cdot 10^6$	$-9,750 \cdot 10^6$	157,792	430,065


2.10 Taula: Nukleoko erreaktantzien kurba karakteristikoaren parametroak.

Param.	A	B	C
X_{zutabe}	382,515	36,057	0,112
$X_{uztarri}$	371,322	42,195	0,040

2.2.6 Transformadorearen ereduaren balidazioa


Aurreko ataleko parametroak erabilia transformadorearen eredu implementatu da *Simulink*-en. Eredu honetan plataforma esperimentalean egindako saiakuntzak errepikatu dira, simulazioen erantzuna egokia dela konprobatzeko. Hauetan guztietan, transformadorearen primarioko korronea aztertuko da, seinale hau baita, modelo eta transformadore errealaren arteko aldea ikusteko seinalerik adierazgarriena.

Emitzak aztertzerako orduan, garrantzitsua da gogoratzea Cinergia tentsio-iturriak harmoniko maila handiko seinaleak sortzen dituela ezarri beharreko tentsioa oso txikia denean (2.25 irudia). Honek emaitza esperimental eta simulazioen arteko aldea egotea eragin dezake elikadura tentsioa oso txikia den saiakuntzetan.






2.25 Irudia: Zero-sekuentziako saiakuntza 21,87 V-eko elikadurarekin.

Zirkuitulaburreko saiakuntzak aztertuta (2.26 irudia), transformadore erreal eta ereduaren arteko erantzuna oso parekoa dela egiaztatu da, %4,20-ko batz besteko errore erlatiboarekin eta 0,83 A-ko errore absolutu maximoarekin (2.9 grafikoa). Beraz, ondorioztatu daiteke parametro hauen doiketa nahiko egokia izan dela.




2.26 Irudia: A faseko zirkuitulaburreko saiakuntzaren simulazioa.




2.9 Grafikoa: Zirkuitulaburreko saiakuntzaren simulazio-emaitzak.

Zero-sekuentziako saiakuntzari erreparatuz (2.27 irudia), kasu honetan ere eredu eta datu esperimentalen arteko aldea nahiko txikia da % 6,76-ko batz besteko errore erlatiboarekin eta 1,03 A-ko errore absolutu maximoarekin (2.10 grafikoa). Parametro hauek ere ondo doitu daudela onartu daiteke.



2.27 Irudia: Zero-sekuentziako saiakuntzaren simulazioa.

Garrantzitsua da azpimarratzea, proiektuaren bideragarritasunaren analisisan, parametro hauen balioak oinarritzekoak direla, izan ere tentsio homopolarrak agertzen direnean, erreaktantzia eta erresistentzia homopolarrek markatuko baitute transformadoreak xurgatzen duen korrante eta karkasaren beroketa.




2.10 Grafikoa: Zero-sekuentziako saiakuntzaren simulazio-emaitzak.


Hutseko saiakuntzari dagokionez, laborategiko sarrera seinaleak errepikatzeke zailtasuna oso handia dela ikusi da, horregatik hutseko saiakuntza guztien simulazioak alde batera utzi dira.

Karga egoeran transformadoreak izango duen portaera aztertu eta aurreikusteko konfigurazio berdineko bi simulazio prestatu dira (2.28 irudia). Lehen fase-neutro tentsio orekatuekin gauzatu da, izarrean jarritako 18 Ω-ko kargak elikatuta. Erresistentzia horiekin honako karga indizean (i) lan egingo du transformadoreak:

$$i = \frac{V_{fn}/R}{I_{izendatua}} = \frac{230/18}{14,43} = 0,886 \quad (2.37)$$



2.28 Irudia: Zamatutako transformadorearen simulazioa.




2.11 Grafikoa: Tentsio orekatuekin elikatutako transformadorearen simulazio-erantzak.

Elikadura orekatua bada ere, transformadoreak desoreka txiki bat eragiten duela nabaritu daiteke (2.11 grafikoa), izan ere, fase bakoitzak ikusiko duen inpedantzia ez da guztiz berdina izango, transformadorearen eredu elektrikoa ez baita guztiz simetrikoa.

Bigarren simulazioa, karga maila eta tentsio homopolar ezberdinak elikatuta egin da, beti ere sorkuntzan tentsio konposatuak balio izendatuan mantenduta. Kasu honetan tentsio homopolarrek A faseko tentsioaren angelu berdina izango du. Simulazio honetan ere, kargak izarrean kokatu dira aurreko simulazioan bezala (2.28 irudia). Kargako tentsio konposatuak izendatuak izateko, sistemaren tentsio jausia kalkulatzeko duen kontzigna bat beharko litzateke [25]. Atal honen helburua funtzionamendua probatzea denez, eta ez erabateko zehaztasuna, tentsio konposatu orekatuak sortuko dira, kargan tentsioak zertxobait txikiagoak badira ere.

Bigarren simulaziotik transformadorearen lan-eremuaren mugak zehaztu dira (2.12 grafikoa).



2.12 Grafikoa: Tentsio desorekatuekin elikatutako transformadorearen simulazio-emaitzak.


Kasu honetan C faseko primarioko korronteak mugatuko du transformadoreak jasan dezakeen tentsio homopolarrik handiena. Lan-eremu hau era matematiko baten adierazteko, karga indizearen menpeko inekuazio bat garatu da aurreko grafikoko emaitzetatik:

$$V_{homopolar} \leq 63,595 - 63,595 \cdot i \quad (2.38)$$

non i transformadorearen karga indizea den p.u balioetan eta $V_{homopolarra}$ Volt-etan adierazita dagoen.


Inekuazioari lehen mailako polinomio baten forma eman zaio, muga oso era simple baten adieraziz. Transformadoreari injektatu dakioken tentsio homopolarrik handiena 63,595 V-ekoa da transformadorea hutsean dagoenean, eta karga izendatua konektatuta duenean berriz, ezin izango du tentsio homopolarrik jasan.

Adibidetzat, 0,886-ko karga indizearekin eta 1 V-eko tentsio homopolarrekin simulatu da sistema primarioko korronteen forma ikusteko (2.13 grafikoa).




2.13 Grafikoa: 1 V-eko desorekarekin elikatutako transformadorearen simulazio-emaitzak.

Azkenik, ereduaren portaera erreala dela egiaztatzeko transformadoreari karga erresistiboak akoplatu zaio, eta sistemari **zamatutako saiakuntza** bi egin zaizkio. Simulazioekin bezala lehenik **tentsio orekatuekin elikatuta** saiatu da transformadorea, 18Ω-ko eta 4,5 kW-ko kargak izarrean kokatu direlarik (2.29 irudia).




2.29 Irudia: Zamatutako transformadorearen saiakuntza egiteko montaketa.



2.14 Grafikoa: Tentsio orekatuekin elikatutako transformadorearen saiakuntza-eraketak.

Simulazioetan gertatzen zen bezala, saiakuntzan ere desoreka txiki bat nabaritu daiteke primarioko korrontean (2.14 grafikoa). Simulazioen eta saiakuntzen arteko konparaketa egin ahal izateko bi grafikoa elkarrekin adieraziko dira faseka banatuta (2.15 grafikoa).



2.15 Grafikoa: Tentsio orekatuekin elikatutako transformadorearen simulazio eta saiakuntza-emaitzak.

Simulazio eta saiakuntza emaitzak alderatuta (2.15 grafikoa), nekez ikusi daiteke hauen arteko aldea. B fasean nabaritu daiteke alderik handiena, zeinetan saiakuntzako korrontek simulazioarena gainditzen duen. RMS baloreei dagokionez, errore absolutuak A, B eta C faseetan 0,352 A, 0,306 A eta 0,142 A-koak dira hurrenez hurren, eta errore erlatiboa berriz %2,824, %2,439 eta %1,108-koa hurrenez hurren.


Emaitza hauek ikusita, eredia oso egokia dirudi egoera egonkorreko zamatutako transformadorea simulatzeko.

Bukatzeko, **tentsio izendatua eta 1 V-eko tentsio homopolarra injektatuta** saiatu da transformadorea, aurreko saiakuntzako montaketa berdina mantenduta (2.29 irudia).

Simulazioen bidez lortutako muga aztertuta, 0,886-ko karga indizearekin, 2.39 ekuazioak mugatuko du tentsio homopolar maximoa.

$$V_{homopolar_{MAX}} = 63,595 - 63,595 \cdot 0,886 = 7,25V \quad (2.39)$$

2.39 ekuazioa ikusita, argi dago saiakuntzako tentsio homopolarra simulazioak markatzen duen maximoaren azpitik dagoela ($1\text{ V} < 7,25\text{ V}$), hortaz, gune seguru baten planteatu da saiakuntza.



2.16 Grafikoa: Tentsio desorekatuekin elikatutako transformadorearen saiakuntza-emaitzak.

Saiakuntza gauzatzerakoan korronteez gora egiten dute tentsio-iturriaren babesek salto egin arte. Desoreka horren txikia da, nekez igerri beharko litzatekeela, (simulazioetan gertatzen den bezala) baina agerikoa da kontuan hartu ez den efektuaren bat ari dela jokoan.

2.16 grafikoa ikusita nolabaiteko erresonantzia-fenomenoa gertatzen ari dela dirudi. Simulazio-emaitzak emaitza esperimentalekin bat etortzeko komenigarria litzateke transformadorearen efektu kapazitiboak aztertzea eta kuantifikatzea, argi geratu baita efektu hauen eragina ez dela mespretxagarria.

2.3 Planifikazioa

Behin proiektuaren irismena zehaztuta ataza ezberdinen banaketa azaltzen da atal honetan, MAL-ean garatutako lan guztia ondo zehazteko asmoz.

1. Fasea: Formakuntza eta Dokumentazioa

- **1. Ataza:** Oinarrizko formakuntza.

Lehenik eta behin ezinbestekoa da proiektuaren oinarria ondo ulertzea, dagoeneko urteak daramatzan proiektua denez hau, azken urteetan egindakoaren berri izatea ezinbestekoa da. Horretarako hasierako formakuntza bilerak egiten dira MALaren zuzendaria eta proiektuan diharduten ikerlariekin.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea, zuzendaria, ikerlariak.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab-Simulink.
- **Iraupena:** 2 aste (40h).

- **2. Ataza:** Dokumentazioa

Hasierako formakuntzan oinarrizko ezagutzak lortu ondoren, proiektuan erabiliko diren teknologien egungo egoera aztertu da. Horretarako artikulua, eta lan akademiko desberdinak irakurri eta ikertu behar dira.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab-Simulink.
- **Iraupena:** 8 aste (160h)

2. Fasea: Sistemaren analisisa

- **3. Ataza:** Simulazioen analisisa

Ataza honetan i-DEK luzatutako FPL-aren eredua eta aurreko urteetan egindako aurrerapausoak ere aztertu eta barneratu behar dira proiektuan aurrera egiteko.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab-Simulink.
- **Iraupena:** 2 aste (40h)

- **4. Ataza:** Sistemarekin trebatzea

Behin ikerlariiek egindako lana ondo ulertuta izan, simulazio propioak egiten hasi daite sistemaren aspektu eta arazo teknikoetara aurre eginez.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab-Simulink.
- **Iraupena:** 3 aste (60h)

3. Fasea: Transformadorearen ereduaren garapena

- **5. Ataza:** Ereduaren garapena

Ataza honen helburua transformadorearen ereduaren topologia zehaztea eta Simulink-en inplementatzea da.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab-Simulink.
- **Iraupena:** 3 aste (60h)

- **6. Ataza:** Funtzionamendu frogak

Garatutako topologia ohiko transformadore baten portaera duela egiaztatzeko oinarritzko simulazioak egin dira.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab-Simulink.
- **Iraupena:** 2 aste (40h)

4. Fasea: Transformadorearen saiakuntzak

- **7. Ataza:** Laborategiko saiakuntzak

Ataza honen xedea transformadorearen ereduaren parametrizatzeko beharrezko saiakuntzak egitea da. Horretarako laborategiko materialarekin eta gailuekin trebatu beharko da, tentsio-iturri eta neurketa gailuak ondo menperatuz.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab, Plataforma experimentalak.
- **Iraupena:** 1 aste (20h)

- **8. Ataza:** Saiakuntzetako emaitzen kalukulua

Behin saiakuntzak gauzatuta izan, hauetatik lortutako seinaleak irakurri eta kalkulu ezberdinak egin behar dira, ereduan erabiliko diren parametroak lortu ahal izateko.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab.
- **Iraupena:** 4 aste (80h)

5. Fasea: Ereduaren balidazioa

- **9. Ataza:** Simulazioak

Eraikitako eredu digitalaren portaera errearen berdina dela egiaztatzeko simulazio ezberdinak garatu behar dira. Aurreko fasean lortutako datu esperimentalekin aldaratuz.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua, Matlab-Simulink.
- **Iraupena:** 4,8 aste (96h)


6. Fasea: Idaztea

- **10. Ataza:** Dokumentua idaztea

Proiektuan zehar lortutako informazioa bildu eta bukaerako dokumentuan plasma-tzen da proiektuan garatutako lana islatuz.

- **Giza baliabideak:** Ikaslea eta zuzendaria.
- **Baliabide teknikoak:** Ordenagailua.
- **Iraupena:** 6 aste (120h)

2.4 Gantt-en diagrama



2.30 Irudia: MAL-aren Gantt diagrama.

Alderdi ekonomikoak

Atal honetan MALaren alderdi ekonomikoak aurkeztuko dira. Horretarako proiektuari lotutako kostuak identifikatu eta kuantifikatuko dira. Honekin batera giza baliabide, material eta ekipamendu kostuak kuantifikatuko dira proiektu osoaren kostu totala kalkulatzeko.

3.1 Barne orduak

Azpiatal honetan proiektuan parte hartzen duten ikerlariak lan egindako ordu kopuruari lotutako gastuak adierazten dira.

- **Zuzendaria:** Proiektuan 100 ordu lan egin direla estimatu egin da, 50 €/h orduko tasarekin.
- **Ikaslea:** Proiektuan 640 ordu lan egin direla estimatu egin da, 6,25 €/h orduko tasarekin.

3.1 Taula: Barne orduak.

